

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko otsailak 11 • 1216. zenbakia

## PARROKIAKO ALTXORRAK ARGITARA



Zabaldu berria!  
C/Txonta 16  
Eibar



crossfiteibar.com  
eibarcrossfit@gmail.com  
T 691 892 535

# CROSSFIT EIBAR<sup>KS.</sup>

PROBA EZAZU DOHAINIK

## DESKANTSU DENDA berria Eibarren, ospitale parean.



- Koltxoak
- Ohe-oinarriak
- Tapizatuak
- Sofak
- Relax besaulkiak (baita motordunak ere)
- Oheko arropa
- Osagarriak.

### Kalitatea, danon eskura.

Irekiera promozioak, **%20**ko deskontuak hainbat produktuetan.



☎ 943 903 002 📞 652 407 141

📍 otaola\_descanso

Otaola hiribidea, 13 - EIBAR

# OTAOLA

DESKANTSU DENDA / TIENDA DE DESCANSO



## EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkide egiten zarenean Eibarren euskaraz bizitzearen aldeko apostua egiten ari zara. Elkarrekin urrutiago helduko gara.

# zarelakopara

*\*Bazkide kuotak 2022ko martxoko Batzar Nagusiaren ondoren eguneratuko dira.*

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_  
Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_  
Jaiotze data \_\_\_\_\_ K/K zenbakia \_\_\_\_\_

**...eta kitto!**  
Euskara Elkartea

**Urkizu 11**  
943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus



## Trenbidearen gaineko paseoa dela eta

Hautsak majo harrotzen ari da asunto hau, Eibarko PSEK aurkeztutako proiektua beste talde guztien ezezkoarekin bertan behera geratuko zela zirudienean, Europako diru laguntzak medio aurrera dihoalako. Baina zer egin du Udaleko talde bakoitzak gai honekiko?

Sozialistek euren proiektua defendatzen jarraitzen dute. Elkarrekin Podemosek ezezkoan segitzen du. Baina zer egiten du PNV-k? Eibarren trenbidea estaltzearen kontra agertzen zen bitartean, Gasteizen proiektu horrentzat Europako diru laguntzak eskatzen zituen. Eta gero, Europako dirulaguntzak etorri direnean, berriro azaltzen da Eibarren proiektuaren kontra, esanez udal taldeek kontra bozkatzeko badute ez dela inoiz egingo.

Baina, bitartean, zertan ari da Gasteizen? Tapia legea aurrera ateratzen. Eta zer dio Tapia legeak? Ba, aurrerantzean Udalek ezingo dutela Jaurlaritzaren proiekturik gelditu. Eta garbi dago hau Eusko Jaurlaritzaren (PNV-PSE) proiektua bihurtu dela, berak eskatu baitu trenbidea estali eta paseabidea egiteko dirulaguntza.

Eta zer egin du EH Bilduk? Konklusio batera iritsi: behin diru laguntzak eskuratuta, modu batera edo bestera, proiektu hori aurrera joango dela onartu. Eta, hori horrela ikusita, akordio batera iritsi da sozialistekin; alde batetik, trenbidea estaltzeko orduan, bizilagunei ahalik eta kalte gutxien egiteko posible diren aldaketa guztiak eginez eta, bestetik, lehen hor gastatu beharreko dirua, 9 milioi eurotik gora, Eibarko Ekialdea (Barrena, Txonta, ...) urbanistikoki zein ekonomikoki biziberritzeko erabiliz.

Eta badirudi EH Bildu dela orain pelikula honetako gaiztoa. Baina, bideo batez ipuinak kontatzen dabiltzanei eta "herriak ez du barkatuko" dioten horiei, ipuinaren gidoida aldatu beharrean daudela esango nieke, eta hobeto pentsatzeko euren "tiroak" nori zuzendu.

**Bilduko bat**

"Gure aditzarekin ez dago hizkuntza lehiakor bat egiterik, ezinezkoa. Har ezazu, adibidez, ingelesetik he has, gaztelaniatik él ha edo ella ha, eta frantsesetik il a aditz forma laguntzailea. Bada, forma horietako bakoitzarentzat euskaraz 200 forma ezberdin behar dituzu! Zeure etxean sartzeko, giltza bakarraren tokian, 200 giltza ezberdin maneiatu behar izatea bezala. Hitz egiteko aditz sinpleago bat garatu ezik, ez duzu hizkera fluido eta sozializatu bat lortuko. Ez, behintzat, inguruko beste hizkuntza batzuekin lehiatu beharra dugun bitartean".

**XABIER AMURIZA, idazlea**

"Ergatiboari dagokionez, zuzentasun kontuaz ari gara, ergatibo euskara hizkuntzaren hezurduraren baitan dagoen heinean. Euskara ergatiborik gabe ez da euskara. Euskarazko aditzaren eraketak ergatiboan du oinarrietako bat eta horregatik dago arautua bere erabilera, araua izanik, ezin urratuzkoa euskaraz zuzentasunez jardun nahi badugu, bai hizkuntzetan eta baita beste edozein esparrutan izaten den era berean ere. Salbuespenik gabe, ergatibo oker erabiltzea arau-haustea da, berdin euskalkian edo euskara batuan".

**INES CASTIELLA, Nafar Ateneoko Euskara saileko eleduna**

"Eskolak betetzen duen funtzioa, ezaguera transmisioetik harago, parking publikoa izatearena. Egunero zazpi orduz jarrita aguantatzen duenik ez dago. Ahal duten moduan aguantatzen dute, baina gurasoen ordutegia babesteko da. Hala ere, badira sistema honetan eroso daudenak. Badago bat Espainian azken hiruzpatalu urteetan PISAn beti lehenengoa ateratzen, eta Finlandiako edozein proiekturen gainetik dago: ez da mistoa, bakarrik neskak hartzen dira eta Opusekoa da, oso ikastetxe polita, ez dauka ikasle asko eta familiek diru pila bat daukate. Baina, horretara jolasten bagara, nik ez dut izena emango".

**JUAN IZUZKIZA, Filosofia irakaslea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OBRAU.-** Jardun, ekin. "Berkak laga alde batera eta obrau biharra izan genduan".

**ODOL.-** Ausardia, kemena, adorea, balorea. "Odola bihar zan friztixa hari jarkitzeko".



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkarte

**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285

**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkarte@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA**  
Maku Oruezabal

**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Maitane Campos eta  
Malen Illaramendi

**HIZKUNTZA ARDURA**  
Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**  
Belen Ulazia

**TELEFONOA**  
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
8.150 ale

**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





## Ego errekenen egoera bertatik bertara ikusten

>>> Barne-formakuntzarako saioa egin zuen Eibarko Baso Bi-ziak taldeak zapatuan. Jose Fran Cid geografo eibartarrak gidatu zuen Sallabente auzoan hasi eta Urkizun amaitu zen ibilbidea. Ego ibaiaren egoera eta ingurumena ezagutu eta berreskuratzeko ibilbide gidatua izan zen eta, parte-hartzaileek, isurketa-puntuak, hidrologia, uren kalitatea, fauna eta flora, hirigintza kudeaketa, eta beste hainbat kontu aztertu zituzten. Horrela, ibai eta erreken osasunak duen garrantzia nabarmendu nahi izan dute: “Gaur egun, nahiz eta hainbat azpiegitura burutuak dauden dagoeneko, ur zikinen isurketek jarraitzen dute (Mallabian, Ermuko tarte batean....) eta, gure ustez, ibai eta erreken itxura eta egitura nabarmen hobetu daitezke”.

## Neguko Merkealdien Azoka zabalduko dute eguaztenetik barixakura

>>> Pandemiaren eraginez ia bertan behera laga behar izan zen Neguko Merkealdien Azoka Toribio Etxebarria kalera itzuliko da datorren astean, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eskutik eta Udalaren laguntzarekin. Eguaztenetik barixakura egongo da martxan eta guztira 27 establezimenduk hartuko dute parte: 13 dendek kalean, Toribio Etxebarrian ipiniko dituzten karpetan eskainiko dituzte merkealdi bereziak eta gainontzekoek, berriaz, dendan bertan. Hiru egunetan 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute azoka.

Kalean parte hartzen hauek egongo dira: Adarabar, Burbujas y Más, Eskulan, Farmaluz, Gigil Design, Guby Chicos, Helmet House, Ikusimakusi, Kopiña, No Comment, Nona, Txukuna, B-Lokal eta ...eta kitto! Euskara Elkarte (bi hauek stand berean egongo dira). Dendan bertan eskaintzak egingo dituztenak, berriaz, Askasibar, Cedry, Doroti, Federópticos Igmaz, Gratzina, Los Chicos, Marais, Oskarbi, Tribeka, Twins, Vieco, Co-



mercial Zabala, Lahidalga eta Bambi dira.

...eta kitto! Euskara Elkarteak *Euskeraz Primeran!* kanpainarekin hartuko du parte. Erosketak egiterakoan euskera erabiltzera animatzeko, hizkizopak osatzera gonbidatuko dute jendea eta, trukean, poltsa bat oparituko diete. Euskara Elkartearen mahaia 10:30etik 12:30era zabalduko dute eguazten eta barixakura eta, eguenean 17:00etatik 19:00etara. Parte hartzen duten guztien artean EMGIk emango duen 100 euroko erosketa-txartela zozketatuko dute.

## AFAGI elkarteak Eibarren ematen duen estimulazio kognitiborako tailerrean parte hartzeko toki batzuk geratzen dira libre

>>> Alzheimerra edo beste demenziaren bat dutenen Senideen eta Lagunen Gipuzkoako Elkarteak (AFAGI) estimulazio kognitiborako tailerra ematen dihardu Eibarren eta oraindik parte-hartzaile batzuk gehiago hartzeko toki dagoela jakinarazi nahi du. Tailerra narriadura kognitibo arina, Alzheimer gaixotasuna edo hasierako fasean dauden beste demenzia batzuk dituztegi zuzenduta dago eta ezaugarri horiek dituen eta Debabarrenean bizi den edonork har dezake parte. Astean bi egunetan, astelehen eta eguenean, ematen dute, 11:00etatik 12:30era, eta uztaile arte iraungo du.

Parte hartu nahi duten pertsonak AFAGIko talde profesionalak baloratu beharko ditu alde aurretik. Beraz, ahalik eta lasterren hitzordua hartzeko eskatzen dute, [afagi@afagi.eus](mailto:afagi@afagi.eus) helbidera idatziz edo 943 297 118 telefonora deituz. Arduradunen berbetan, “tailerraren helburua Alzheimerra edo beste demenziaren bat



duen pertsonaren bizi kalitatea hobetu eta narriaduraren ibilbidea moteltzea da. Estimulazio kognitiboak gaitasun funtzionalari mesede egiten dio, eta autonomia sustatzen laguntzen du, horrela erlazio pertsonalak aberastuta eta baktarte soziala saihestuta”.

Tailerrean, funtzio kognitiboak (oroimena, lengoia, arreta, orientazioa...), egunero bizitzako oinarrizko jarduerak (garbiketa pertsonala, elikadura...), jarduera instrumentalak (diruaren erabilera, telefonoaren erabilera...) eta gizarte-harremanak indartzeko eta eurei eusteko jarduerak landuko dira.



## Pentsiodunek manifestazioa egingo dute bihar Bilbon

>>> Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua kalera irtengo da berriz bihar, Estatu gainerako pentsiodunen plataformekin eta mugimenduekin koordinatuta egingo den mobilizazioan, "21/2021 Dekretuaren aurka gaudela adierazteko". Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako pentsiodunen mugimendua bilduko duen manifestazioa Bilbon egingo da, 12:00etan Plaza Eliptikotik abiatu eta udaletxearen aurrean amaitzeko eta Debarrenetik bertara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu

dute. Iruñean eta Lizarran ere elkarretaratzeko egingo dituzte.

Pentsiodunek salatu dutenez, "2021eko abenduko erreformak ez ditu betetzen egindako promesak, gure aldarrikapen gehienak baztertzen ditu eta murrizketa berriei eta pentsio publikoen kudeaketa-eredu pribatuen aplikazioari atea irekitzen dizkio".

Pentsio publikoen erosteko ahalmenari KPI errearen arabera eusteko konpromisoa alboratuta, erreformak pentsioen erosteko ahalmenaren murrizketa larria dakarrela diote.

## Greba egingo dute eguaztenean Gipuzkoako zaharren egoitzetan

>>> Otsailaren 16an eta martxoaren 24an greba egingo dute Gipuzkoako helduen egoitzetan eta LAB sindikatutik grebara batzeko dei egin nahi diete langileei, "langileen aldarrikapenak babestu eta elkartasuna adierazteko".

Sindikatu ordezkariek adierazi dutenez, "urriaren 28ko greba egunean bilera-eskaera formal eta publikoa egin genion Gipuzkoako Foru Aldundiari, helduen egoitzetako egoeraz hitz egin eta irtenbideak bilatzen hasteko asmoz. Azaroaren 12an, ordea, erantzunik jaso ez genuenez, beste

greba egun bat burutu genuen. Abenduaren 17an, zain jarraitzen genuenez, Gizarte Politiketako egoitza okupatu genuen. Maite Peñak hitzordu bat emateko konpromisoa hartu zuen arren, gaur gaurkoz ez da langileekin harremanetan jarri".

Salatzen dutenez, "zaintza negozio bihurtu dute, eta diru publiko finantzaturako zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresa pribatuak izugarrizko irabazi ekonomikoak izaten ari dira, gure aitona-amonon zainketa-lanaz eta helduen egoitzetako langileen esplotazioaz baliatuz".



688 62 76 89  
**ESKERTZAK ETA URTEURRENAK**  
943 20 09 18  
Urkizu, 11 - solairuartera  
publizitatea@etakitto.eus

**FUNEUSKADI**  
Grupo Aizkoa

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeuskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



## Enpresa-inkubagailua zabaldu dute Azitaingo industrialdean

>>> Enpresa-proiektu berriak abiatu nahi dituztenentzat espazio berria, enpresen inkubagailua, inauguratu zuen eguaztenez Jon Iraola alkateak Azitaingo industrialdean, Debegesa aldamenean. Garapen agentziaren alboan egon zen jayetxea moldatu eta gero prestatu duten guneak industria eta teknologia arloko enpresa sortu berriak hartuko ditu eta, inaugurazio ekitaldian esandakoaren arabera, “eskualdean ekintzailtzari laguntzeko zerbitzua indartzea lortu nahi da egitasmoarekin, horretarako Debarrenen ekintzaileei lanerako guneak partekatzeo aukera eskainiz”.

Inkubagailuak Basque Precision Technology District eskualde mailako estrategiarri lotutako industria-arloko proiektuak eta jarduerak garatzeari babesa emango diola adierazi dute: “Gainera, espazio berri honek udalerrian eta eskualdean gaur egun dauden beste inkubazio-gune batzuen osagarri izan nahi du, hala nola Eibargunea enpresen haztegiarena eta Tekniker haztegi teknologikoarena. Koordinatuta eta lankidetzan arituko da eskualdean dauden gainerako azpiegitura eta baliabideekin”. Enpresa sortu berrientzat prestatu duten guneak bost bulego dauzka eta, horrez gain, lankidetzan aritzeko gune zabala, bi-

lerak egiteko tokiak eta sukalde txiki bat ere baditu.

Egitasmo honetan 250.000 euro erabili dituzte eta %90 (220.000 euro inguru) Eibarko Udalak inbertitu ditu. Gainerakoa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debegesa Debarreneneko Ekonomia Garapenerako Elkartek ordaindu dute, bakoitzak 15.000 euro inguru bideratuta.

Gune berriari esker proiektu berritzaileak gauzatzea erraztuko dela uste dute, “eta, udalerrira aberastasuna eta enplegua erakartzeaz gain, Eibarren jarduera ekonomiko berriak garatzea sustatuko du. Horrek ere eragina izango du eskualdean”.

Inkubagailu berria kudeatzeaz eta dinamizatzeaz Debegesa arduratuko da, eta aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua eskainiko die industria-sektorean negozio-ideia bat dutenei.

BIDEOA IKUSTEKO



## Doako bisita gidatua antolatu du Armagintzaren Museoak

>>> Eibarko Armagintzaren Museoak erakusketa iraunkorra ezagutu nahi dutenentzat doako bisita gidatua antolatu du datorren asteburuko zapatarako, otsailaren 19rako: euskarazko bisita 17:00etan hasiko da eta gaztelarazkoa, berriaz, 18:30ean. Parte hartzeko interesa duenak aurretik eman beharko du izena, 943 70 84 46 telefono zenbakira deituta edo, bestela, museoak@eibar.eus helbidera mezua bidalita. Talde bakoitzean 20 lagun onartuko dituzte gehienez.



## Euriak bidegorrian hondatutakoa konponduko dute

>>> Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuak jakinarazi duenez, abenduan izandako euriteek Eibar-Maltzagako bidegorrian eragindako kalteak konponduko dituzte eta lan horietarako aurrekontua 100.000 eurotik gorakoa izango da. Lanak “lehenbailehen” hasiko dira.



## Ingurumen eta digitalizazio arloko prestakuntza-ikastaroak

>>> Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak langabeentzako lau prestakuntza-ikastaro eskainiko ditu laster Debegesan, enpresetan praktikak egiteko aukerarekin. Lanbide %100ean diruz lagundutakoak eta batez ere langabetuei zuzenduak, honako profesionaltasun-ziurtagiriak emango dira, modalitate prezentzialean: “Operaciones de grabación y tratamiento de datos y documentos (CP1)” (360 ordu + 80 ordu praktikan) eta “Seguridad informática (CP3)” (420 ordu + 80 ordu praktikan), digitalizazio arloan; eta “Gestión ambiental (CP3)” (420 ordu + 80 ordu praktikan)



eta “Gestión de servicios para el control de organismos nocivos (CP3)” (430 ordu + 80 ordu praktikan), ingurugiro arloan. Informazio gehiago nahi duenak 943322808 telefonora deitu dezake edo formacion@urko.net helbidera mezua idatzi.

## Era askotako jarduerak eskaintzen ditu Ipuruako Jubilatutako Elkarteak

>>> Ipuruako jubilatuen elkar-teak Benidormera bidaia antolatu du apirilaren 17tik 30era (14 egun, 13 gau). Interesatuak elkartearekin harremanetan jar daitezke, lehenbailehen, 943202862 edo 696064396 telefonoetara deituta.

Bestalde, hainbat jarduera martxan daudela gogorarazi nahi dute: "Gimnasia Mentala" ikastaroa urtarrilaren 11n hasi zen eta maiatzaren 24ra arte eskainiko dute; "Bizitza eman 80 urteak bete ondoren" ikastaroa, berri, otsailaren 23an hasiko da.

Horrez gain, eguenean (otsailak 17), 17:30ean egingo dute Ohiko Batzar Orokorra. Otsailaren 24an, Eguen Zuri ospatzeko, ASPACE elkartekoei piskolabisa eskainiko diete eta,



Aratoste Martitzenean, merendola eta koko-jantzi lehiaketa egingo dute. Martxoaren 17rako, berri, egun osorako txangoa antolatu dute Irune-  
ra, Oiasso Museora bisita egiteko. Eta asteburuoro, zapatu eta domeketan kina egiten dute, 17:00etatik 20:00etara. Ile-apaindegi- eta podologia-zerbitzuak ere martxan daude.

## Ipuruako komentuaren sarrera eta arkupeak ez dituzte botako

>>> Udalak jakinarazi duenez, Ipuruan eraikiko den kirol proiektu berria (Ipurua II) integratuko ditu eliza, arkupeak eta Santa Ines kalean dagoen komentura sartzeko patioa. Komentua Eibarko Udalak desjabetu behar izan zuen 2018an, haren titular zen Erljio Ordenak (Monja Kontzepzionistak) hala eskatuta. Azaldu dutenez, interes historiko-urbanistikoko handieneko elementuak kontserbatuko dituzte. Romualdo Galdos kaleko multzo urbanoa 1952. urtekoa da.



## Untzagako San Blas opilen lehiaketako txapeldunak pozik joan dira saria jasotzera

>>> Daniel Badiolak eta bere biloba Ekhik irabazi dute Untzagako Jubilatutako Etxeak aurreko astean egin zuen San Blas opilen lehiaketa. Txapeldunek pozarren jaso zuten saria, menu berezia Kontent tabernan jateko txartela, Jesus Mari Iparragirre presidentearen eskutik. Zorionak eta on egin!

Bestalde, San Balentin ospatzeko, astelehen arratsaldean txokolatea eta bizkotxoak banatuko dituzte jubiletzeko bazkideen artean, goxo-goxo meriendatzeko. Eta 50 urte edo gehiago ezkondu eman dituzten bazkide bikoteei, berri, opari modura bazkaria antolatu diete datorren asteburuan.

## Hirigintza Plan Orokorren buruzko azken bilera

>>> Hirigintza Antolamendua-ren Plan Orokorren (HAPO) berrikuspenaren aurrerapenari buruzko hirugarren eta azken hitzaldi informatiboa datorren astean, martitzenean izango da, 18:00etan Beheko Tokian. Hasierako dokumentua Udalaren webgunean kontsultatzeko aukera dago.



**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**Izadi LORADENDA**

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarguak etxera*



# Egoerara moldatutako egitaraua prestatzen ari dira Aratosteetarako

Osasun egoerara moldatutako egitaraua prestatzeko lanean dihardute Udaleko Kultura sailean Aratosteak ospatzeko, aurreko asteko barixakuan eman zuten prentsaurrekoan adierazi zuten, eta zeregin horretan herriko kolektibo eta elkarteekin batera elkarlanean dihardute.

Osasun egoerak eskatzen dituen neurriak “uneoro” zainduta, Aratosteak ospatu ahal izateko egitaraua prestatzen ari direla azaldu zuten Jon Iraola alkateak, Patxi Lejardi Kultura zinegotziak eta José Luis González Kultura Sailearen arduradunak. Asmo horrekin, herriko kolektibo eta elkarteekin batera ari dira lanean eta, aurreko astean aurkeztu zutena egitarauaren zirriborroa baino ez bada ere, egitea aurreikusten diren jarduera batzuk daude eta horien berri eman zuten.

Besteak beste, “herriko eskolek hala eskatuta”, Eguen Zuri egunean ikastetxeen kalejira egiteko asmoa daukate, baita Kaldereroena ere, Barixaku Erregularrean. Bi kalejirak egiteko modurik egokiena zein izango den begiratzen ari dira,

“batez ere jende asko toki batean ez elkartzeko”

Horrez gain, Kezka dantza taldearen eskutik Koko-dantzak egingo dira otsailaren 19an: goizean, 08:30ean lehen emanaldia merkatu plazako baserriarekin eskaini ondoren, Mandiola eta Gorostako baserrietara joan-

go dira koko-eskean, eta Aratosteetako jai-giroa aterik ate eramango dute koko-dantzeekin. Arratsaldean, 19:00etatik aurrera, herriko kaleak alaitzen ibiliko dira koko-marruak.

Eta, kaleak musikarekin alaitzeko, Ustekabe eta beste fanfarre batzuekin kontaktuan

daudela gaineratu dute. Horrez gain, ...eta kitto! Euskarra Elkarteak antolatzen duen play-back lehiaketa ere egingo da”.

Orohar, antolatuko diren jarduerak “egunetz, aire librean eta toki batetik bestera mugitzen” izango direla azaldu zuten, betiere jende asko toki berean batzea saihestu nahi dutelako. Behin betiko egitaraua datozen egunetan joango dira zehazten.

Bestalde, prentsaurrekoan eman zuten ezagutzera jaiak iragarriko dituen kartela: Bartzelonako Jaume Gubianasen “Koko-jantzi 5.0” izenburukoak irabazi du lehiaketa. Haurren artean, Xabier Pérez Ibañez de Garayoren (12 urte) “Fusioa” eta Ianire Hijar Herreraren “2022ko Aratosteak koloretxuak” lanak saritu dituzte. ■







## Zaborteziaren hondamendia gogoan

Domekan bete ziren urte bi Zaldibarren zabortezia amildu zela eta, hori gogoratzeko, manifestazioa egin zen Ermutik Eitzagara, ehunka herritarren parte-hartzearekin. Hondamendia gertatu zen Eitzaga auzoan omendu zituzten Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran, zabortezia behera erori zen egunean bertan beharrean ari zirela hil ziren bi langileak, bi abesti kantatuta eta, jarraian, dantzariak eskainitako aurrekuarekin. Langile biak gogoratzeko "herritarren ekarpenei esker" egin den eskulturaren lore-eskaintza egin zuten jarraian. Hala ere, Zaldibar Argitu-tik salatu zutenenez, "eskultura ipintzeko eskaera atzera bota digu Zaldibarko Udalak, dekretu bitartez". Gauzak horrela, eskulturarekin batera ipini behar zen plaka oroigarria auzoko iturrian ipini dute. **MANIFESTAZIO ETA EKITALDIKO BIDEAK IKUSTEKO:**



## Victor Sarasqueta lantegia; Sarasketatarrak

Garbiñerekin batera elkarrizketatu zuten **Ladislao Basauri Arzuagak** ondo ezagutzen zuen Victor Sarasqueta lantegia. Bertan eraikinean jaio zen, lehenengo pisuan. Behean harategia. Gainontzeko etxeetan Sarasketatarrak bizi ziren. Sarasketatarren familia.



Argazkian Victor Sarasqueta tailerra ikusten da, 1912. urte inguruan. Atzean ikusten diren etxeak armagin eibartarrari izena zor dion kalekoak dira.



**Garbiñe Gisasola Berrio-otxo**  
(1934 – 2010)

Gerra ondorengo urte gogorak oso ongi gogoratzen zituen elkarrizketatu zutenean. Abertzaletasuna barne-barnetik bizi zuen emakumea; Eibarko lehenengo abertzaleak gertutik eza-gutu zituen.

## Garbiñe Gisasolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Zuk orduan ondo ezautuko zenduan fabrikia, ez?] Puu! Fabrikia? Bai! [Nun jaixo ziñan zu, parian?] Bertan, bertan etxian. Gu lehenengo pisuan. Ta sotantuan karnazerixia. Beste guztia... Gero, bigarrenian zera zeuan, Boni Sarasketa, Milagrosen-ta aitta, matrimonixua. Ta eskuman zeuan zera, hau, Bitor Sarasketa zaharra. Ta haren gaiñian zeuan... Bai. Leonor... Leonor ez. Juli zaharrena, Irigoienekin ezkondu zana. Ha hirugarrenian. Bitorrek zekazen... Bi bider ezkondu zeuan Bitor zaharra. Ta lehenengua zan Boni. Boni lehenengo semea. Seme bakarra. Ha ezkondu zan zerakin, Milagrosen... Consuelo Sarasketakin. Ez, Consuelo... Consuelo Oiarzabal. Consuelo Oiarzabal. Aitta ez zan izan abogaua? Bai, Lasturren uste det. Ezta? Lastur edo... hortxe. Sekretarixia izan zan aiuntamentukua. Lasturkoa uste det zala. Ta gero bestiak euki zittuan familixia Juli, Leonor, Cristina ta Beatriz, ta Bitor. (...) Beatriz gaztena. Bitor, Juli... bestia, Cristina, zerakin Aranzibiakin ezkondu zan, enpleaua zerekua, zoroetxekua edo, Zaldibarren (...)”.

E  
IBARTARREN



## AYA lantegiaren kokalekua gerra aurretik

Migel Agirre AYA lantegiaren sortzailearen familia. Gerra garaian gaur egun "Leder" denda dagoen lekuan zegoen AYA, baina bonbardaketetan suntsitu zen.

Aguirre y Aranzabal lantegia 1972an. Udalak 1988an erosi zuen eraikina eta, goitik behera berrizatu ondoren, Portalea kultur etxea zabaldu zuen 1996an.




**Maria Luisa Aranzabal Bustinduy**  
(1936)

Maria Luisa Aranzabal Bustinduy Bilbon jaio zen 1936an. Gerra garaian Zaldibarren bizi izan zen amarekin eta bukatutakoan Eibarrera itzuli ziren. Nicolas Aranzabal bere aitona zenak eta Miguel Agirrek AYA eskopetagintzako enpresa sortu zuten 1915ean eta familiak beti lan egin du AYA-ren inguruan. Maria Luisak Berrizen, Aldatzen eta gero Ingalaterran ikasi zuen. AYA-n lan egin zuen urte batzuetan, itzultzaile bezala. "Eibarko Industria Ondarea"-ren proiekturako elkarrizketatua izan zen.

## Maria Luisa Aranzabali grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

"(...) Hamen euki zebeñ taillerra, nere akorduz, hamen bertan, zergaittik eze nik ez neban eza-gutu, baiña hamen bertan, Leder dagationian, hamen bertan, zeken taillar bat hor. Zelan esaten da? Alkilao, bai, alokatuta. [Eta nun zan? Zer dago bertan momentu honetan?] Etxia, Leder eta, hamen bertan, etxeko pare-parian. Hori, hor bertan. [Anbulatorixu inguruan?] Ez, haren parian. Bai, hantxe, baiña gerran (...)".



**J**on Baguesen berbak entzunda, San Andres parrokiaren altxor bat dugula esan daiteke. Altxor handi bat, liburu itxurarekin. “Liburu handia da bertan ikusi daitekeena eta jendea tamainarekin harritu egiten da, baina arrazoi bategatik da hain handia”, kontatu digu musikologoak telefonoaren beste aldetik. “Urrunetik ikusteko egiten zituzten hain liburu handiak” argitzen du.

Baguesek esan digunaren arabera, horrelako liburuak parrokia guztietan egoten ziren. “Gaur egun ere monastegietan mojek eta fraileek egunero eta egun guztian zehar ordu jakin batzuetan kantatu egin behar dute, eta liburu hauetan agertzen da zer kantatu behar duten (salmoak, himnoak...)”, zehaztu digu.

Abesterako orduan, oster, batzuetan elkarrekin kantatzen zuten eta beste batzuetan korua erdibitu egiten zen. “Eibarren, 1623. urtean, apaiz batek, bost benefiziatuk eta 13 presbiterok osatzen zuten korua. Normalean, koruetan kide batzuk beste batzuen aurrean jartzen ziren eta erdian fazistol izeneko atril handi bat jartzen zuten, liburu eusteko, koruarengandik 3 edo 4 metrotara. Horregatik behar ziren irudi eta letra handiak, irakurri ahal izateko”, azaldu digu Baguesek.

### Toledotik Eibarrera

Eibarko kantu-liburu honen ezaugarri nagusia zera da Baguesentzat: 12 liburuk osatzen duten bilduma batekoa izatea. “Toledotik kopiatuta etorri zen Eibarrera 1673. urtean”, zehazten du musikologoak. “Horrelako liburuak bi arrazoirengatik aldatu behar izaten ziren noizbehinka (50 urtetik behin, gutxi gorabehera). Batetik, egunero erabiltzen zirenez hondatu egiten zirelako. Horregatik, liburuak ez ziren paperezkoak, larruzkoak baizik (ardi-larrua, adibidez), gehiago irauteko. Eta bestetik, eliza katolikoak noizbehinka bere meza-liburuan aldaketak egiten zituelako. Hau da,

# XVII. mendeko doinuak San Andres elizan

Historiarekin zita dugu bihar San Andres parrokiaren. Elizara joan zaretenok agian ikusi duzue dagoeneko, baina abenduaz geroztik XVII. mendeko kantu-liburu handi bat dago aldarearen alboan, zabal-zabalik, eta bihar eguerdian Jon Bagues musikologo eta musika-artxibozainak liburuaren inguruko hitzaldia eskainiko du San Andres elizan bertan.



bere liturgian eta ohituretan. Orduan, horrek liburu berriak egitera behartzen zituen”, diosku Baguesek.

XVII. mende hasieran hori gertatu zen. Aldaketa batzuk gertatu ziren eta mende horren erdialdera parrokiak euren liburu-bildumak aldatzen joan ziren. “Liburu-bildumak dira, eguneko ordu guztietan kantatzeko liburu ezberdinak erabili

behar zituztelako”, argitu digu musikologoak. Hain zuzen ere, Toledotik etorritako bilduma hori 12 liburuz osatuta dago, baina ez dira 12 liburu ezberdin. Sei liburu bikoiztu direla esan daiteke. “Fazistolean alde batean eta bestean jartzen ziren, eta, horrela, alde bateko eta besteko abeslariak denbora berean kantatu zezaket”, azaldu digu.

Baina nola iritsi zen horrelako liburu-bilduma bat Eibarre-ra? “Liburu horiek eskuz idatzita daude eta oso garestiak ziren. Eibarren zortea izan zuen XVII. mendean erdialdera, Pedro de Iñarra eibartarrak oso kargu garrantzitsua zuelako Toledoko katedralean”, kontatu digu Baguesek. “Katedraleko obreroa zen. Hau da, buruzagi ekonomikoa”, argitzen digu.

Horrela jarraitzen du musikologoak: “Toledoko katedrala Espainiako Katedral Primatua da, oso garrantzitsua izan da beti, eta 150 bat liburu handi daude bertan gordeta. Aipatu dudan bezala, XVII. mendean liburuetan aldaketak egin behar izan zituzten eta Pedro de Iñarrak bilduma oso bat oparitu zion Eibarri, herriarentzat bilduma bat idatzarazi ondoren”.

### Kontserbazioaren balioa

Oso arraroa zen horrelako bilduma bat Eibar moduko herri batera ekartzea eta are aringarria da bilduma oraindik gordeta edukitzea. “Urte askotan erabiliak izan direlako gorde izan dira liburu hauek San Andres elizan. Hala ere, normalean horrelako liburuak ez dira botatzen. Erritua aldatzen bada, baliteke bildumak botatzea edo kanpora eramatea, baina Eibarko parrokiak aparteko garrantzia eman dio bilduma horri, nahiz eta XVIII. mendean eta aurrerago ere liturgian aldaketak egon ziren. Horrek ematen dio balioa bildumari. Toledon ere gordeta dago bilduma hau, han ere bildumari garrantzia eman dioten seinale. Toki gutxitan gordezen dira parrokiatan bilduma osoak eta, XVII. mendekoa izanik, Eibarko are bitxiagoa da”, azaldu digu Baguesek.

Hori bai, bilduma osatzen duten 12 liburuetatik bakarra dago zaharberrituta; egun hauetan parrokiaren ikusgai dagoena, hain zuzen ere. “Horrelako liburu bat zaharberritzeak demaseko lana eskatzen du. Liburuak desmontatu behar dira, egurrezko tapak tratatu, larruzko orriak banan-bana garbitu,



Inizialek duten estiloari garrantzi berezia eman die Jon Baguesek. EKHI BELAR



Jon Bagues musikologoak hitzaldia eskainiko du bihar parrokiari.

den-dena berriz josi eta enkoadernatu. Denbora asko behar duten lanak izaten dira”, diosku artxibozainak.

Elizan ikusgai dagoen kantu-liburua bilduma guztitik zaharberitu den bakarra bada ere, biharko ekitaldian bildumaguztia jarriko dute ikusgai, Xabi Zubizarreta San Andres elizako parrokoak esan digunaren arabera. “Liburuak txukundu egin ditugu ikusgai ipintzeko”, esan zigun kantu-liburuaren argazkiak egitera joan ginen egunean.

#### **Pentagramak eta inizialek**

Kantu-liburuan agertzen diren abestiak mezatan eta elizgizo-

nen ekintzetan kantatzen ziren. “Nik dakidala abesti hauek ez ziren elizatik kanpo abesten”, diosku Baguesek, “baina liburuak aztertu beharko lirakeke, Eibarrera iritsi zirenean liburuaren amaieran beste zerbait txertatu zuten edo ez ikusteko, batzuetan gertatzen delako. Dena dela, uste dut Toledotik etorri ziren moduan daudela hauek”.

Hasiera batean liburuako abestiak kantatu egiten ziren, baina XVIII. mendetik aurrera organoarekin edo instrumentu baxuekin laguntzen ziren batzuetan. “Arrazoi batengatik gertatzen zen hori. Nor-

## **“Toki gutxitan gordetzen dira bilduma osoak eta, XVII. mendekoa izanik, Eibarkoa are bitxiagoa da”**

malean, abestu egiten denean tonuari eutsi egin behar zaio afinatuta kantatzeko, baina abeslaria nekaten doan neurrian ahotsean igarri egiten da eta ahotsa behera doa, desafinatu egiten da. Orduan, tonuari eusten laguntzeko sartu zituzten instrumentuak. Kantaren amaieran hasieran bezalako tonua edukitzeko”, azaldu digu musikologoak.

Irudietan ikusi daitekeen bezala, liburuan pentagramak ageri dira eta karratu batzuk daude pentagramaren lerroen artean. “Pentagramaren lerroak gorritz daude eta horien gainean dauden karratuek notak markatzen dituzte (notazio karratua). Kantu gregorianoetan erabiltzen den estiloa da hau”, esplikatu digu Baguesek.

Pentagramaz gain, beste irudi batzuk ikusi daitezke orrietan eta horretan jarri du atentzioa musikologoak. “Liburu hauetan inizialek dute garrantzia, hasierako letrek. Filigranaren bitartez daude idatzita eta oso apainak dira. Estetika kontua da, ez du beste arrazoirik”, gehitzen du.

Historia interesgarria izan daiteke eta ondo gorde beharreko ondarea da liburu-bilduma hau, baina bertan dauden abestiak interpretatu daitezke? Badago horrelako kanta abesten duen jenderik? “Horrelako abestiak kantatzeko gregorianoa ikasketak egin behar dira”, argitzen digu Baguesek.

“Gaur egungo liturgiak norberaren hizkuntzan egiten dira (euskaraz, gaztelera...), baina lehen latinez egiten ziren. Liburu hauek latinez daude idatzita eta gregorianoa ikastaroak egin behar dira abesten jakiteko. Euskal Herrian badaude espezialistak eta gregorianoa bakarrik abesten duten taldeak (adibidez, Easo korua eta Donostia Ereski)”, gehitzen du. Eibarrera gonbidatu beharko ditugu San Andres parrokiako altxor hauei bizi-tza emateko.



Odola ematea beharrezkoa da, ospitaleetan uneoro izaten baita horren beharra.

# Odol-emaileak, ezinbesteko bizitza-emaile horiek

Untzagako Jubilatuen Etxean izaten dute hitzordua. Hilean bitan, hamabostean behin izaten da bizitza ematearen saio hori. Eguenetan beti, arratsaldeko 16:15etik 20:30era arte odol-emaileek goizean hartutako txandari jarraitzen diote. Ordua hartu behar delako: “Egunean bertan, 08:30etik 13:30erako ordutegian, 943007888 telefono zenbakian”, dio Jose Mari Lupeña gure herriko odol-emaileen ordezkariak. Bizi ditugunak ez dira sasoi onenak arlo horretan, pandemiak asko jaitsi duelako emaileen kopurua. Horregatik eskatzen dute jendearen parte-hartzea, “odolaren beharra beti izango dugulako, hori ez da aldatuko”. Eta egin beharreko ahaleginak ez digulako “beste mundukorik eskatzen, minutu batzuren kontua besterik ez da”.

**L**upeña 2020an odol-emaileen kopurua asko jaitsi zela aitortzen digu: “603 donazio bakarrik izan genituen urte horretan, ulertzekoa da, egoera ere berezia zelako”. Iaz zertxobait erreku-peratu zuten aurreko urteetako martxa: “808 donaziora iritsi ginen, aurreko urtekoaren heren bat gehiago”. Eta Eibarko odol-emaileen elkartekoek euren buruari beste erronka bat ere jarri diote: “2022an 850era iristea gustatuko litzaiguke; hori dugu helburu”, dio Jose Marik. Eta ez da bakarria: “Jende gaztea erakarri behar dugu, jarraikortasuna ziurtatzea ere

komeni zaigulako”. Gaur egun Eibarren mila odol-emaile inguru daudela diosku berak.

Odol-emailea izateko eskatzen dena ere ez delako hainbesterako. 18 urterekin hasi daiteke odola ematen eta 65ekin amaitzen da ibilbide hori: “Orokorrean horrela da, baina sano egonda 70era arte jarraitu daiteke odola ematen”. Hori bai, kasu guztietan emaileek 50 kilo baino gehiago pisatu behar dute. Gizonezkoen kasuan, urtean lau aldiz eman dezakete odola; emakumezkoek, bestalde, hirutan.

“Ordu erdi baino gehiago ez da luzatzen prozesua, beti ere

odolaren loditasunaren araberak; batzuen kasuan ziztada jaso eta berehala lortzen dute poltsa betetzea, beste batzuen kasuan geldoago doa kontua. Normalean ordu laurden ba-

**Hamabostean behin, eguenetan, eman daiteke odola Eibarren**

tean libre zaude”, dio Lupeña. Gainera, anemia-proba egiten dizute aurretik. Gaur egun, dena dela, bada lan berezi batzuk egin beharra, segurtasunaren alde jokatzeko: “Kamilla desinfektatzea, barruan maskarillarekin egon behar zara... horrelako detailak”. Joan aurretik neurririk hartu behar den galdetuta, “sabala hutsik ez joan behintzat” esaten digu, “zorabiatzeko arriskua dagoelako”. Azken egunean, esaterako, 53 lagun bildu ziren Jubilatuen Etxean odola emateko, “normalean baino gehiago, akaso odola emateko eskatuz zabaldu den



Jose Mari Lupeñak odol-emaileek betetzen duten funtzioaren garrantzia nabarmendu du.

azken kanpainari erantzunez". Eta handik irten ziren, guztion mesederako izango den euren funtzioa beteta, "indarrak berreskuratzeko ogitartekoa amaituta; egia esateko, baso bete ur nahikoa da berri-berri egoteko berriro, eta hurrengo egunean inoi baino despejatuago sentituko zara".

### 120 aldiz odola emanda

Lupeñak berak hamar urte daramatza Eibarko ordezkaritzaren arduradun; aurretik beste 30 urtetan antzerako lanean ibili bazen ere, "Juanxo Urigoitiari eta beste batzuei laguntzen". 120 aldiz eman zuen berak odola, "medikuak lagatzeko esan zidan arte. Hasieran bi hiletik behin ere ematen nuen, urtero bost aldiz". Pagaegi kaleko DYaren lokalatan hainbat urtetan jardun izandakoa dugu Jose Mari: "Oraindik bulegoa han daukagu. Dena dela, hura ez zen odol-emaileen lehenengo egoitza, aurretik Untzagan egon zelako, Kaiku gainean, 1. pisuan". 2013an Anbulatorioan hasi ziren extrakzioak egiten eta hasieran bai igarri zutelajendearen gorakada, "tokia ere aproposagoa zelako". Gero kopurua "bere onera" bueltatu zen, pandemia iritsi arte. Horrek ekarri zuelako Anbulatoriotik Untzagako Jubilatuen

## Gizonezkoek lautan eman dezakete urtero, emakumeek hirutan

Etxera aldatzea odola ateratzeko esparrua. Protokolo guztiak, hala ere, berdina izaten jarraitzen du: lau erizain etor-

tzen dira Donostiatik eta eurek egiten dituzte elkarrizketak eta extrakzioak. Hortik kanpo ere egiten dituzte odol-ateratzeak, "goizez, Tenikerren edo Unibertsitatean, Armeria Eskolan bere sasoiak".

### Litro erdi odol

Litro erdi odol ematen du baikoitzak, hori da ateratzen dutena: "400 zentilitro alde batetik eta beste 100 odola eta plaketak analizatzeko, plasmarekin batera". Odolak 42 eguneko bizitza duela ere kontatzen digu. Eta Gipuzkoan egunero 300 poltsa bete behar



Odol-emaileek urtero jasotzen dute ondo merezitako errekonozimendua.

### ODOLA EMATEKO SAIOAK 2022an

Urtarrila: 13  
Otsaila: 10 eta 24  
Martxoa: 10 eta 24  
Apirila: 28  
Maiatza: 12 eta 26  
Ekaina: 9 eta 23  
Uztaila: 7 eta 21  
Abuztua: 4 eta 18  
Iraila: 1 eta 15  
Urria: 13 eta 27  
Azaroa: 10 eta 24  
Abendua: 22

izaten direla. Emanaldi kopuruaren arabera, emaile fidele- nek urtero izaten dute eurak omentzeko aprobetxatzen den eguna: "Iaz, esaterako, 496 izan ziren Gipuzkoan, euretako 16 Eibarren. 25, 40, 50, 60, 75 eta 100 extrakzio izan dutenek jasotzen dute saria egun horretan, kopuru horiek betetzen dituztenean". Arlo horretan, eskualdeko herrietakoek herri batean elkartzen dira urtero, Debabarrenekoen kasuan Eibarren askotan. "Iaz 2020koa ospatu genuen Eskarne jatetxean, han banatu genituen diplomak. Orain Gipuzkoako batzarra Arantzazun egingo dugu, bi urte daramatzagu-eta egin barik".

Odol-taldeei erreparatuta, onena besteentzat emaile unibertsala da (0-, zero negatiboa), kaltetuena den neurri berean, bakarrik euren taldekoenena jaso baitezake. AB+, ordea, hartzaile unibertsala da: talde guztietako emaileengandik jaso dezake eta eman, bakarrik, bere taldekoei. Odol ohikoena, bestalde, 0+ da: hirutik batek du odol mota hori (%374). Positibo guztiei emateko aukera dute (A+, B+, AB+ eta 0+), baina jaso bakarrik 0+ eta 0- taldeetatik. AB- taldekoek, azkenik, euren taldekoei eta AB+ direnei eman diezaiakete eta jaso talde negatibo guztietatik. ■



Aner Cardo  
ANER CARDO

## Mirarizko aldizkako baraua edo "ayuno intermitente"

Azkenaldian aldizkako baraua mundu guztiarentzat gomendatu da, ura edatea izango balitz bezala. Edonorentzat, bizitzako edozein momentutan eta beste ezaugarri indibidual batzuk kontuan hartu gabe. Estrategia dietetiko honi kalean zein sare sozialetan esleitzen zaizkion onurak entzunda, beste informaziorik jaso gabe, panazea dela pentsa dezakegu. Baina, edozeini gomendatzeko estrategia al da? Zoritxarrez, ez. Beraz, nola erabili dezakegu?

Aldizkako baraua elikagaiak kontsumitzen ez diren aldia luzatzean oinarritzen da. Normalean, gaueko baraualdia (lo gauden bitartean egiten duguna) bazkal ordura arte luzatzen da, baina beste ordutegi batzuk ere erabili daitezke. Azken finean,

**"Aldizkako baraua elikagaiak kontsumitzen ez diren aldia luzatzean oinarritzen da. Normalean, gaueko baraualdia (lo gauden bitartean egiten duguna) bazkal ordura arte luzatzen da"**

elikagaiak kontsumitzen gauden ordu kopurua murriztean dago gako; "horrela, egunaren amaieran kontsumitzen den elikagai edo energia kantitatea txikiagoa izango da. Beraz, helburua pisua – edo, hobeto esanda, gantz-masa – jaistea helburu dugunean, estrategia egokia izan daiteke. Hala ere, gauza batzuk hartu beharko dira kontuan: ohitura dietetikoak desegokiak badira, aldizkako barauak ez du osasuna hobetuko; behar dena baino gehiago edo berdina jaten bada, ez da gantz-masa murriztuko, aldizkako baraua egin arren; jarraitzeko zaila bada (gosea pasatzen...), ez da gomendagarria izango.

Aipatu bezala, kasu batzuetan desegokia izan daiteke, adibidez: gihar-masa handitu nahi duten pertsonentzat, goizez entrenatzen dutenentzat... Eta arriskutsua izango da anorexia, bulimia edota bestelako elikadura nahasmenduak dituztenentzat.

Beraz, zalantzak agertzen badira osasuna hobetzeko, gantz-masa murrizteko, errendimendua handitzeko, edota elikadurarekin erlazioa hobetzeko prozesuetan, onena konfiantzazko dietista edo nutrizionistarekin kontaktuan jartzea izango da. Gogoratu gure osasunaz hitz egiten ari garela.



Tomas Vouilloz  
TOMAS VOUILLOZ

## Ezer berririk ez

Azken urteetan ez dut denbora askorik pasatzen Eibarren. Jakina faltan sumatzen dudala. Jakina gogoz etortzen naizela. Eta jakina, nola ez, azkar aspertzen naizela. Askotan jaso dut kexa hau azken aldian lagun askoren aldetik.

Batzuetan nire herriarekin haserretzen naiz. Betikoak, badakizkizu. Ez dudala nire lekua aurkitzen, beti gauza berdina egiten direla, beti poteo berdina, jende berdina, leku berdinean,

ordu berdinetan. Badakit maiz nire herriarekin haserretzen naizela norbaitekin espresuki edo neure buruarekin hasarretzea baino erosoagoa delako.

Denbora luzez beldurra eman dit deserosotasuna adierazteak. Zutabe hau idazten ari naizela ere sekulako gatazka izaten ari naiz, irakurle guztien gustokoa izan nahian. Baina (eta "baina" hau *baaaaaaaaaa*)

bezala irakurri behar da), den denak ezin dira pozik geratu. Horregatik, baliteke zuk ondoko hau entzun nahi ez izatea eta, batek daki, zurekin zerikusi handia izan dezake. Eibar norabide bakarrek marea zabal bat da. Gure Eibar kuttuna.

Miniatutzeko gizarte honetan antzeko lekuetara doazen izateko moduak daude eta guk horien artean hobeto datorkiguna aukeratzen dugu. Desbiderapenak orokorrean nahikotxo zigortzen dira eta giza jazo hauek hiru aukera izan ohi dituzte: ahal dutenean alde egin, zurrumurrei aurre egin eta pakean bizi arte bere lekua bilatu, edo gaitzespena ez jasateko mozorro bat jantzi. *Spoiler*: gaitzesle handienak mozorro baten barruan ezkutatzen dira. Ziur aski gai zara zure hurbilean kasu bakoitzerako adibide bat bilatzeko. Zu ere hor nonbait egongo zara, seguru baietz. Edo uste duzu inork sinetsiko dizula ez zarela Eibarrekin eta eibartarrekin potroetaraino inoiz egon? Nahiko *dramas* naiz. Barre egiten ari natzaio nire buruari oraintxe bertan. Nire herria maite dut gauza gutxi maite ditudan bezala. Horregatik baimentzen diot nire buruari horrelako astakeriak idaztea.

Ni kanpora joan naiz, ez oso urruti. Eta nolabait ari naiz erosoago sentitzen dudana zerbait eraikitzen. Kontua hori da, Eibarrekin hasarretzea ez dela bidezkoa. Herri hau denon artean eraikitzen ari gara. Zorionez bizitzak, Eibarren ere, auke-ramaten du aurrera egiteko modu ezberdinetan. Bila dezala bakoitzak berea.





## San Blas opilak bedeinkatu zituzten herriko elizetan

Otsailaren 3a zapore ezin gozoagoarekin hasi genuen. Eguzkia eta giro atsegina lagun, maitasun handiz etxean egindako (edo erositako) San Blas opilak bedeinkatzera eraman zituzten eibartar askok.

San Blas eguna ospatzeko ohiturak indartsu jarraitzen du herrian eta horren lekuko izan ginen San Andres parrokian. Eliza bete-beteta egon zen joan den asteko eguen goizean eta Xabier Zubizarreta apaizak hainbat ibilaldi egin behar izan zituen bertaratu zirenen sanblasak bedeinkatu ahal izateko.

Meza nahiko laburra izan zen eta egun berezirako dotore jantzi zen jendeak txintxo itxaron zuen bere txanda, tradizioak zehazten duen bezala, bedeinkapena jasotzeko.

Eztulari aurre egiteko erremedioa omen dira bedeinkatutako sanblasak, hariak edo opilak biltzen dituzten trapuak, eta are garrantzi gehiago dute birus madarikatuek hainbeste protagonismo duten sasoi honetan.

San Blas eguna joan da, baina opilek gure artean jarraituko dute oraindik ziurrenik; eta, kasurik onenean, gure sabelean.



<<< ERNESTO BARRUTIA • 'La novena' antzerki-taldearen zuzendaria >>>

# “Hasiberriak izanik, antzerki-taldeko kide batzuek demaseko talentua dutela erakutsi dute”

'La novena' antzerki taldeak 'Esperpentos con chispa y fuego' antzezlan eskainiko du hilaren 17an, 19:00etan, Coliseoan. Ikasten egitasmotik irten zen talde amateurrek lau istorio antzeztuko ditu publikoari barrea eragin eta ondo pasatzeko asmoz, Juan Luis Agirrek pianoan lagunduta.

EKHI BELAR

## Egun gutxi falta dira ikuskitzunerako. Urduri? Gogotsu?

Pandemia aurretik beste obra bat prestatzen ari ginen, baina bi urtez geldirik egon garenez, publiko aurrean aurkeztu genuen azken lana hartu (Esperpentos con chispa y fuego), gauza batzuk moldatu eta berriz taularatzea erabaki genuen, publikoarekin kontaktua berreskuratzeko asmoz. Gero, beste muntaia horrekin jarraituko dugu.

## Aldaketa handiak egin dizkizue jatorrizko obrari?

Gauza batzuk kendu eta berriak jarri dizkiogu, abestiak txertatu ditugu... Taldean lagun asko gaudenez, istorio ezberdinak kontatzen ditugu aktore guztiok presentzia izateko. Lau istorio izango dira guztira eta bakoitzak gauza bat kontatzen du, ez dute elkarren arteko loturarik.

## Zer kontatzen duzue istorio horietan?

Istorioek ez dute transzendentzia berezirik. Publiko jakin bati zuzentzen zaie eta oso komedia dibertigarriak dira. Bai publikoak bai guk ondo pasatzea da gure asmoa.

## Zuk zeuk antzezenarekin ondo pasatzen duzula dirudi, urte asko daramatzazulako mundu horretan. Nola hasi zinen?

Star fabrikari lan egin nuen 30 urtez eta 50 urte nituenean ka-



leratu egin ninduten. Ez ninduten beste inon hartzen eta ez nekien zer egin. Beraz, Euskal Aktoreen Sindikatua kide egin nintzen eta zortea izan nuen. Zenbait konpainiarekin estatu osoan zehar ibili nintzen, baita Parisen ere, eta artista bezala kotizatzen jarraitu nuen. Antzerkiak salbatu egin ninduen.

### **Baina antzerkigintzan esperientzia zenuen?**

25 urterekin Arrate Taldean hasi nintzen. Antzerki amateurrean nuen esperientzia, baina sindikatuan izena eman nuen ikastaroak egin nituen. Kameraren aurrean nola aritu ikasi nuen, adibidez. Birziklatu egin nintzela esan daiteke.

### **50 urterekin lanik gabe geratu eta antzerkiaren bidea hartu zenuen. Inoiz ez da berandu?**

54 urte nituen antzerkian hasi nintzenean eta lagunek barre egiten zuten. "Pistoletatik antzerkira?", esaten zidaten. Nik, noski, antzerkia nuen nahiago, barrenetik irteten den zerbait delako. Gainera, nahiz eta euskara ondo ulertzen dudan eta loibekin orain gehiago egiten dudan, antzerkiak euskaraz aritzeko aukera eman zidan.

### **Eta zer moduz?**

Asko sufritzen nuen. Ez nuen erraztasunik eta, gainera, euskara batuan egin behar nuen, baina neure buruari jarri nion erronka izan zen. Donostiako konpainia batek ordezko moduan hartu ninduen Bartzelonan antzezlan bat egiteko. Maite Agirre zen zuzendaria eta antzezlan euskaraz ere egiteko proposatu zidan. Erronkari aurre egin nion eta oso ondo irten zen. Eta ni oso pozik! 'Eta Maria, hiru aldiz amapola' zen antzezlanaren izenburua, Maria de la O Lejarragaren inguruko obra.

### **Nola sortu zenuten 'La novena' antzerki-taldea?**

Ikastenen Esperientzia Eskolaren bederatzigarren promozioan parte hartu nuen. Ikas-



**"Bai publikoak, bai guk, ondo pasatzea da gure asmoa"**

turte amaieran zein jarduera garatu nahi genuen galdetu ziguten eta, taldean nengoela aprobetxatuta, antzerkia egitea proposatu genuen. Horregatik deitzen gara 'La novena'. Egingdako lanaz oso harro nago. Beste kideentzat eszenatoki gainera igotzen diren lehen aldia izan da eta batzuek demaseko talentua dutela erakutsi dute.

### **Eurek nola bizi izan dute prozesu hori?**

Hasieran lotsa ematen zien, baina normala da. Orain, ostera, gauzak ikasten joan dira, askeago sentitzen dira eta demaseko maila dutela erakutsi dute.

**"Pistolak egitetik antzeztera pasa nintzen 50 urte ingururekin. Antzerkiak salbatu egin ninduen"**

### **Nolako laguntza eskaini diezu?**

Pazientziarekin jokatu dut (barreak). Oinarrizko teknikak erakutsi dizkiet eta antzerkia nola egin behar den erakusten saiatu naiz, besteak beste. Telebistan, zinean edo antzerkian antzeztea oso ezberdina da. Antzerkian azken lerroan dagoenarentzat antzeztu behar duzu.

### **Urtero-urtero promozio berriak irteten dira Esperientzia Eskolatik. 'La novena' taldera batzen dira?**

Batzuk bai, baita Esperientzia Eskolatik kanpoko batzuk ere (baina Ikastenen eman behar dute izena gutxienez). Denak

dira ongi etorriak. Hori bai, emakumeekin alderatuz gero gizonezko aktore gutxi dugu. Ez dakit zergatik izango den. Batzuek esan didate demaseko lotsa ematen diela antzerkiaren kontuak, nahiz eta gustatzen zaien. Taldeko gehienei ere lotsa ematen zien hasieran, baina ohitzen joan dira.

### **Taldearen filosofia argia da: ondo pasatzea. Lortzen duzue?**

Oso ondo moldatzen gara, afariak egiten ditugu, barre asko... Harreman onak sortu dira bertan. Gainera, komediak egiten ditugu eta, guk ondo pasatzeaz gain, publikoak ere gozatu dezala nahi dugu. Jendeak erlaxatzea eta barre egitea nahi du, eta guk atsegin handiz eskaintzen diegu eurek jaso nahi dutena. Oso publiko ona dugu, akatsen bat eginez gero ondo ulertzen dutelako.

### **Zer esan dezakezu hasieran aipatu duzun beste obra berri horren inguruan?**

'Espermentos con chispa y fuego' bezala, istorio dibertigarriak kontatuko ditugu bertan. Oraindik titulua ere ez diogu jarri!

## Euskeraz Primeran! datorren asteko merkealdien azokan egongo da

>>> Euskeraz Primeran! Eibarko merkataritza zein ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko ...eta kitto!-k sortutako ekimena da. Helburua lehen hitza euskaraz egin eta, ondorioz, posible den kasuetan elkarriketak euskaraz edo elebietara (batek erderaz eta besteak euskaraz) egitea da. Ildo horretan hainbat ekimen gauzatu ditugu urtean zehar, hala nola elikagai dendetako posterren banaketa eta zabalakundea (...eta kitto! astekarrian), paisaia linguistikoan eragiteko “zabalik/itxita” kartelen ekoizpena eta zabalkundea, gilda-lehiaketa, “Eskatu eskaini euskaraz, Betikoa Gertukoa” kanpainaren garapena Udaleko Ekonomia eta Garapen zein Euskara Sailaren, EMGIrekin eta Dendari Elkartearekin el-

karlanean, “Sare Sozialetan ere euskaraz” kanpaina...

Denda eta tabernetan euskararen erabilera handitzeko, bezerook betetzen dugun funtzioa oso garrantzitsua da, gure hizkuntza jokabideak besteengan eragiten baitute. Horrela, neguko zein udako merkealdien azokan presente egoten da “Euskeraz Primeran!” kanpaina bezeroengan eragitea helburu hartuta.

Aurtengoan ere (otsailak 16, 17 eta 18) alderdi ludikoa eta herritarron inplikazioa uzartuko dira, eta kanpainak izango duen gunera gerturatzen denari hainbat hitz-jolasetan parte hartzea eskatuko zaio (hizki-zopa, wordle), eta, hori egin eta gero, euskararekiko hartuko duten konpromisoa idatzi ahal izango dute koader-



no batean (euskaraz eskatuko dut, mezuak euskaraz idatziko ditut, euskaraz gehiago irakurriko dut...). Hori egin eta gero, poltsa dotorea jasoko dute. Parte hartu dutenen artean Eibar Merkatalgune Irekiak emandako 100 euroko erosketa-txartela zozketatuko da ostiral eguerdian.



## Argazki-transfer ikastaroa datorren martitzenean elkartearen lokaletan

>>> Ilunabarrian egitasmoaren barruan argazkiak egurrera transferitzen ikasteko tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak datorren martitzenerako, otsailak 15.

Teknika hori egiteko “alde zurretik editatutako eta inprimatutako argazkiak erabiliko ditugu eta kola berezia erabiliz irudia egurraren gainera transferituko dugu. Etxean daukagun egurrezko edozein azalera apaintzeko oso teknika erraza da”, diote Elkartetik. Izen-ematea zabalik dago (elkartea@etakitto.eus / 943200918) eta 3 euro balio du.

## Kattalin Miner Harixa Emoten

>>> Euskarazko literatura-tertu-  
liak Kattalin Miner (Hernani, 1988) idazlea ekarri zuen martitzenean. “Turista klasea” liburuari atera zioten mamia tertuliakideek, Antxon Narbaizaren gidaritzapean. Irakurriko duten hurrengo liburua Amaia Telleriaren “Haize-lekuak” izango da eta lan horren inguruko saioa martxoaren 1ean egingo dute.



## Barixakuak Jolasian Txaltxa Zelain izango da gaur

>>> Txaltxa Zelaiko parkeak hartuko ditu gaur (17:00-18:00) Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. HH3 eta LH2 mailen arteko umeentzat izango dira jolas horiek, doan. Hurrengo barixakuan, otsailak 18, Torrekuako parkeak hartuko dio lekukoa.

## Iker Calvo protagonista Gipuzkoako Neguko Txapelketetan

>>> Aurreko zapatu eta domekan Bergarako Agorrosin igerilekuetan jokatuak Gipuzkoako Neguko Txapelketetan Eibar Igerixaneko 14 igerilarik hartu zuten parte, guztien artean 20 dominez jabetzeko: lau urrezkoak, sei zilarrezkoak eta brontzezko beste hamar. Absolutuen mailan Elene Oyarzabal, Roke Etxeberria eta Asier Gomez izan ziren gure herriko ordezkariak eta azkenak hirugarren amaitu zuen 400 estiluetan. Junior mailan Miren Galdos, Maddi Maguregi, Malen Beobide, Leire Larrañaga, Maialen Gomez, Iker Uribesalgo, Ekaitz Lago eta Igor Ruiz aurkeztu zituen Eibar Igerixanek: Galdosek eta Beo-



bidek hiruna domina irabazi zituzten (bakoitzak zilarrezko bi eta brontzezko bat), eta Jaurregik brontzezkoa bereganatu zuen 100 estiloko proban. In-

fantil mailan, bestalde, Nora Guinea izan zen parte hartzen, Paula eta Iker Calvorekin batera. Hor Iker Calvo nabaritu zen beste igerilari guztien

gainera eta parte hartu zuen proba guztietan nagusitu zen: tximeleta, bular eta libre erako 100 metroko probak irabazteaz aparte, lehenengoa izan zen 200 libretan ere, modu horretan jardunaldiko igerilaririk onena bihurtu eta, harro eta pozik, txapela jantzeko. Azkenik, erreleboetako probetan lortu zituzten Eibarkoek beste domina guztiak: nesken laukoteek zilarrezko bi eta brontzezko bat irabazi zituzten bezala, mutilen laukoteek brontzezko hiruren jabe egin ziren, laukote mistoak beste bat lortzeko 4x100 estiloetan. Eibar Igerixan kluba bera ere hirugarren sailkatu zen aipatutako Gipuzkoako txapelketan.

## Eneko Larrea txapeldun eta Julen Teran azpitzapeldun Euskadiko txapelketetan

>>> Pista estaliko denboraldiari amaiera emateko Donostian aurreko asteburuan jokatuak absolutu mailako Euskadiko Txapelketan Eibarko Klub Deportiboko hainbat atletek hartu zuten parte, baita euretako bik domina eskuratu ere. Horrela, Eneko Larreak, 2'05eko jauziarekin, urrezkoa irabazi zuen altuera jauzian; eta Julen Teranek, 1.500 metrotako las-

terketan, zilarrezkoa bereganatu zuen 3.59.83ko denborarekin. Eurekin izan ziren Elene Arrazola 60 metrokoan (bere marka hobetu zuen), Nora Zabala luzera jauzian (zazpigarren izan zen), Carlitou Mendi jauzi hirukoitzean eta Urko Martinez altueran (seigarren sailkatu zen).

Bestalde, Enara Magunazelaiak xabalina jaurtiketako

denboraldiari hasiera eman zion Durangon, 32,24ko marka eskuratuz; sentsazio onak izan zituen asteburuan jokatuak diren Euskadiko jaurtiketa luzeetako txapelketei begira. Azkenik, pixka bat urrutirago joanda, Iñigo Egidazuk pista estaliko Espainiako Master txapela jantzi zuen Valentzian, 60 metroko proban 9.54 marka lortuta.



Iñigo Egidazu garaile Valentzian.

## Aitziber Urkiolak 14. postuan amaitu zuen Gimnastica Ulian

>>> Duatloi eta triatloi denboraldiak oraindik ez badira hasi ere, gure herriko Jaz Eibar Triatloiko ordezkariak hasi dira motorrak berotzen hainbat kirol-probatan. Horrela, aurreko domekan Donostian jokatuak 10 kilometroko Gimnastica Ulia proban Aitziber Urkiola lehiaketara itzuli zen berriro bigarren aldiz ama izan eta gero; 14. postuan amaitu zuen, 38:49ko denborarekin helmuga-

garatuta. Euskal herriko lasterketa zaharrena den horretan izan ziren baita Aitor eta Igor Fernandez ere: Aitorrek 124. postuan amaitu zuen lasterketa eta Igorrek 139. ean.

Asteburu honetatik aurrera hasiko dira lehen duatloiak Euskal Herrian. Eta gutxi gertatzen zaio Eibarko Duatloiarri ere, horko egutegiaren arabera martxoaren 5ean jokatzekoa delako.



## Eibar FT-ko harrobiak martxa onean dihardu

>>> Hori erakusten dute azken jardunaldian izandako emaitzek ere. Txikienetatik hasita, infantil txikiko taldeek 11-0 eta 6-0 irabazi zieten Ilintxa eta Burumendi, hurrenez hurren. Infantilen Ohorezko Mailako taldea Realari 2-0 nagusitu zitzaion, kadeteen Euskal Liga-koak 4-2 garaitu zuen Kostkas, eta jubeniletako Nazional mailako taldeek 1-2 (Logroño) eta 3-1 (Galdakaori) irabazi zuten.

## Jarraian lortutako laugarren garaipenarekin sei onenen artean da Eibar Rugby Taldea

>>> Aurreko zapatuan Unben Zarautzen aurka jokaturako partidua irabazita, Ohorezko B Mailako gure herriko taldeak goiko sei onenen artean sartzea lortu du bigarren itzulia has-tekoa denean. Aurrez izotzak Unbe guztiz hartua zuela-eta atzeratutako partidua izan zen azken hori, oraingoan eguzki-pean jokatu ahal izan zena. Gaston Ibarbururen mutilek, atsendaldian atzetik bazihoazen ere, markagailuari buelta eman eta 20-18 irabaztea lortu zuten, justu aurrean zuten aurkari zu-zena gaindituz.

Egun berean, baina parti-du horren aurretik, Eibarko

alebinen Multikiroleko az-ken errugbi eguna egin zuten, oraingoan zelai artifizialean. Hemendik aurrera barixakue-tan 17:00etan izango dute en-trenatzeko hitzordua Ipurua-ko anexoan.

### Probintzia mailako jarduerak

Zapatu hori egun bizia izan zen baita gazteentzat ere, Gipuz-koako jarduerak berreskuratu ahal izan zirelako. Alde bate-tik, 14, 16 eta 18 urtez azpiko mailetako jokalariek Ordizian parte hartu zuten Gipuzkoa-ko Emakumezkoen II. Kon-tzentrazioan, Cristina Guntin eibartarren prestatzailearen



Bigarren itzuliri itxaropentsu begiratzen diote Ibarbururen mutilek.

aginduetara; berak koordina-tuta, entrenatzaile lanak egin zituzten baita Erika Pasenau, Lide Erbina, Doha Benslaiman, Islam Chajrane eta Eider Gar-ciak ere.

Mutilen kasuan, zortzi ei-bartar izan ziren 14 urtetik az-pikoen selekzioan: Aimar Las Heras, Xabier Barruetabeña,

Markel Arrizabalaga, Juan Cruz Luna, Alex Jimenez, Aitor Martín, Eneko Abanzabalegi eta Aitzol Uribe. Eta beste lau 13 urtez azpikoan: Eki Agirre, Luken Lago, Manex Astarloa eta Koldo Sendino. Aurrekoet-z gain, Jafeth Garellano 16 urte-tik beherako Euskadiko selek-zioaren deialdian sartu zuten.



## Arrizabalaga-Gaminde garaile Astelenan Master Cup torneoan

>>> Arrizabalaga-Gaminde bikoteak bere hautagaitza aur-keztu zuen Astelenan jokatu-tako Master Laboral Kutxako jardunaldian. Pilota mistoa-rekin jokaturako elite mailako partiduan, Olatz Arrizabala-gak eta Enara Gamindek 22-16 irabazi zieten Amaia Aldai eta Andrea Capellani Eibarko frontoian jokaturako jaialdia-ren barruko partidu nagusian. Pilota mistoarekin ere, baina gazteen mailan, Nagore eta

Leire Galeanok 18-9 iraba-zi zieten Miren Gisasola eta Olatz Insaustiri. Pilota goxua-rekin jokaturako triangularre-tan, bestalde, helduen mailan Irati Salinas - Alejandra By-liak bikote errioxarra eta One-ka Bereau-Marie Goyetnetxe Iparraldekoa sailkatu ziren hurrengo kanporaketarako, eta maila bereko gazteen ar-loan Uxue Perezek eta Aia-la Uriartek osatutakoak egin zuten aurrera.



## Hodei Ezpeleta hautagai Deia-ko Euskal Kirolaren Sarietan

>>> Denboraldi bikaina egin duen kirolaria hilaren 17an Gug-genheim Museoa egingo den ekitaldian sarituko dituzten ki-rolarien artean izango da, Jon Rham, Leticia Canales, Unai Simon, Iñigo Martinez, Pello Bilbao, Kerman Lejarraga, Kar-mele Gisasola eta beste batzuen artean. Bestalde, aurreko dome-kan Beasainen jokaturako fina-lerdian, Hodei Ezpeleta erraz

sailkatu zen Urrezko Aizkola-rien Binakako Txapelketaren finalerako. Jokin Urretbizkaia "Basozabal" lagun zuela, alde handiarekin irabazita. Julen Alberdi "Txikia IV" eta Suharri Rodriguez "Paolla"-k zailago izan zuten sailkatzea, Legution jokaturako finalerdian bost se-gundoko aldearekin nagusitu baitzitzaizen Mikel Larrañaga eta Andoni Iruretagoienari.

## Bihur dezagun Ipurua gure gotorleku! kanpaina hasi du Eibar FT-k

>>> Eibar FT-k hainbat ekimen jarri ditu abian "gure gotorlekuan" jokatzeko geratzen diren bederatzi partiduetara zenbat eta ikusle gehien joatea bultzatzeko. Diotenez, "Ipuruak berebiziko garrantzia izango du taldearen lidergoa sendotzeko"; horregatik, lau partiduko packa 50 euroan eta beste promozio batzuk atera dituzte geratzen diren bederatzi jardunaldietarako. Ipurua X4 pack-ean klubak Fuenlabrada, Burgos,



2. Mailako taldearen martxa onak gero eta zaletu gehiago erakarri du.

Amorebieta eta Lugoren aurka partiduetarako sarrera lortu ahal izango da 50 euroren truke; horrez gain, abonatuak laguntzaileentzako sarrera osagarriak erosi ahal izango dituzte 10 eurotan. Publiko orokorrarentzat eserlekuek 10 eta 25 euro arteko prezioa izango dute. Azkenik, Eibarrek VIP gunerako sarrerak 90 euroren truke erosteko aukera ere aktibatu du. "Denok batera askoz indartsuagoak garela erakutsi dugu!" diote klubetik.

## Urbateko waterpolistak asteburuan jokatu den lauko Kopako finalean izango dira

>>> Kopako final-laurdenetan Easori 18-2 erraz irabazi eta gero, gaur egungo txapeldunek Sestaon izango dute benetako erronka bihar hasiko den lauko finalean. 14:00etan hasiko da etxeok aurkari izango duten finalerdia eta, bizkaitarrei irabazita, txapel berri bat euren gaitasuneko finala izango dute zain. Oso bestelakoa izan da emakumezkoen taldearen bidea konpetizio horretan, Kopako final-laurdenetan kanporatu baitu Askartzak (15-1) Leioa-ko igerilekuan. 2017an Kopa

irabazita Urbaterako lehen titulu ofiziala lortu zuen talde haren eta gaur egun Eibarko kluba ordezkatzeko duenaren artean alde handia dago eta Euskal Herrian badira Eibar-koa baino talde hobeak.

Haurren Liga Mistoko Urbat Urkotronik-ek bere bide sendotik jarraitzen du eta azken jardunaldian ere garaipen erraza eskuratu zuen, Urgara-Txingudiri 20-7 nagusituta. Berri onenei eutsiz, poztekoa da Eskolako Ligari ere berriro ekitea, taldeak lehiaketetan parte hartu ahal izango dute-eta.



Emakumezkoen taldeak lidergoan amaitu du ligako lehen fasea.

## Arrate Eibar Eskubaloiko talde nagusiak garaile azken asteburuan ere

>>> Oraingoan ez zuten alde handiarekin irabazi euren partidua, baina larri ere ez ziren ibili jokatuako partidua aurrera ateratzeko. Hiru goleko aldeaz amaitu ziren norgehiagoka biak, baina gizonezkoen taldearen kasuan talde bietako erasoak defentsa lanei nagusitu zitzaizkien, 33-30 markagailuak erakusten zuen azken emaitzak argi azaltzen duenez. Horrela, Eibarko taldearen bi jokalarik hamar gol sartzerari iritsi ziren: Axier Gisasola kopuru horretara heldu zen eta Asier Urainek 12 ere gauzatu zituen Aragoiko Tarazona taldearen aurka. 1. Nazional Mai-

lako multzoko lider postuan jarraitzen dute, jakina, Helvetia Anaitasuna sei puntura dutela. Emakumezkoen taldearen kasuan, defentsa-lana gehiago nabaritu zen Ipuruan Ameztoi Zarautzen kontra jokatu-tako neurketan. Euskal Ligako sailkapenaren lehenengo fasea amaituta, eibartarrek gorenean amaitu dute, Bera Berarekin berdinduta, hurrengo faserako puntu sorta politarekin. Omega Peripherals edo Eraiken Eharialdea bezalako talde gogorreiregin beharko diete aurre hemendik aurrera: erronka polita eibartarrentzat jokatzeko diharduten maila berrian.



Gaur egungo Kopako txapeldunek iazko garaipena berretsi nahiko dute.



Gorka Guenaga UNI-ko irakasleak "FPCloud" proiektua azaldu die Gipuzkoako Lanbide Heziketako beste ikastetxe batzuei.

<<< GORKA GUENAGA • UNI Eibar-Ermua ikastetxeko informatika irakaslea >>>

## “Ikastetxeko baliabideak edozein lekutatik erabiltzeko aukera ematen duen sistema landu dugu”

Uni Eibar-Ermua zentroak Tknikaren “FPCloud” proiektu teknologikoa landu du Euskal Herriko beste bi ikastetxerekin batera. Gorka Guenaga eibartarra informatika irakaslea da Uni Eibar-Ermua ikastetxean eta bi urtetan jardun du proiektu berritzaile hori bere ikastetxean gauzatzen. Emaitzak arrakastatsuak izan dira eta orain dela gutxi proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkie Gipuzkoako Lanbide Heziketako beste zentzoei, Ikaslan Gipuzkoaren eskutik.

### “cloud.uni.eus” izena jarri diozue UNIn garatu duzun proiektuari. Zertan datza?

Gure ikastetxearen baliabideak edozein lekutatik erabiltzea ahalbideratuko duen azpiegitura da: softwarea (aplikazioak, simulagailuak, etab.), mahaigain birtualak, azeleragailu grafikoak, 3D inprimagailuak, IoT, robotak... Gurekin batera beste bi ikaste-

txek ere jardun dute FPCloud proiektuan lanean: Birt (Urruneko Lanbide Heziketa Euskal Herrian) eta CIFP Zornotza LHII. Proiektua orain dela bi urte hasi zen, Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak gidatua, Euskal Herriko edozein ikastetxeko baliabideak edozein ikastetxetik erabiltzeko helburuarekin. Lehen esan dudana bezala,

ikastetxe batzuk elkartu ginen bakoitzak bere zentroan *Cloud* edo laino bat egiteko, eta aurretik Bergarako Miguel Altuna ikastetxea sartu da.

### Nola funtzionatzen du?

Modu erraz batean azaltzeko, guk hemen, UNI-n, makina edo ordenadore indartsu bat erosi dugu, 1.500 Megabyteko memoria kapazitatearekin.

Erabiltzen dugun IsardVDI sistemari esker, ordenadoreak “sortzen” edo editatzen ditugu ordenadore nagusi horren barruan, kasu bakoitzean beharrezkoa den softwarearekin, memoriarekin edo abiadurarekin. Sareak ere birtualak bihurtzen ditu. Beraz, nahi beste ordenagailu sor ditzakegu eta ikasle eta irakasleei “bidali”, behar dituzten programekin



eta ezaugarriekin. Pentsatu, informatikako ikasle bakoitzari bost ordenagailu ematen dizkiogu! Ikasleak eta irakasleak euren pasahitzarekin sartzen dira cloud.uni.eus-en, edo zuzenean guk bidalitako esteka baten bidez, eta hor aurkituko dute lanerako behar duten guztia, edozein lekutan daudela ere. Azken batean, mahaigain birtualak dira. Esate baterako, gaur ikasleekin ariketa berezi bat landu dut eta, software konkretu eta berezi bat behar zenez, zein ordenagailurekin egin behar zuten esan diet. Ariketa hori amaitzerakoan, ordenagailu hori laga eta beraienarekin edo beste batekin jarraitu dute lanean.

### Zer nolako abantailak eskaintzen ditu sistema horrek?

Abantaila asko ditu. Baliabiderik ez duten pertsoneri edo ikastetxei bere prestakuntzarako beharrezkoak diren teknologia eta gailuetara sartzeko aukera ematen die. Gainera, ikasleek zein irakasleek ikastetxeko edozein lekutatik erabiltzeko aukera daukate; beraz, gelen deslokalizazioa ematen da.

### Lanerako edo ikasteko behar den guztia Cloudean edo lainoan baldin badago, berdin du zein ordenagailu mota daukagun? Ordenagailu zahar batekin berdin-berdin egin daiteke lan?

Ez du axola zer gailu duzun, ordenagailua, tableta edo mugikorra. Interneteko konexioa baino ez da behar. Ikastetxean dauden ordenagailuen bizi-iraupena asko luzatzen da, behar dugun

## "Nahi beste ordenagailu sortu ditzakegu eta ikasle eta irakasleen beharretara egokitu"



Gorka Guenaga ...eta kitto!-ko bulegoetan egon da UNI-n garatu duten proiektua adibide praktikoekin azaltzen. 327 ordenadore sortuak daudela ikusi dugu eta horietatik 130 unean bertan martxan. ANA AIZPURUA



Proiektuan parte hartu duen Ikastetxe bakoitzak oraingoz bere Cloud propioa dauka. Hiru super-ordenagailu horiek bilduta sortzen da Clouda.

guztia Cloudean daukagulako. Pantaila eta teklatura besterik ez da behar. Ikastetxeko azpiegitura informatikoaren kontsumoa

optimizatu egiten da eta gelako ekipamendu informatikoaren mantenua izugarri sinplifikatu. Azpimarratu beharreko beste

alderdi bat da ikasketak egiteko ekipamendu informatiko egokia erosi ezin duten ikasleei emango zaien aukera.

### IsardVDI sistema aipatu duzu. Zer eskaintzen du horrek?

IsardVDI delakoa mahaigain edo eskritorio birtualak azkar eta erraz ezartzera bideratuta dago. Mahaigain birtualak sortu daitezke nahi den sistema eragilearekin eta nahi diren aplikazioekin. %100ean software librearekin erabiltzen dute eta zerbitzarien mota guztietako azpiegiturretara egokitzen dira. Talde katalana da, eta oso sartuta daude software librearekin lotutako gaietan.

### Beste eremu batzuetan ere erabili daitezke horrelako zerbitzuak?

Jakina! Gure enfokea ikastetxe mailara begira dago, baina ziur nago herri mailan ere gauza asko egin daitezkeela. Ikastetxe guztiak, jubilatutakoak, ...eta kitto! bezalako elkarteak... Denak horrelako sistema btaean batzeak onura asko ekarriko lituzke. Lainoaz hitz egiten dugunean, argi esan behar da lainoa ez dela existitzen. Azkenean norbaiten ordenagailua da, Googlearena zein gurea. Kasu honetan gurea da. Lanbide Heziketako zentro eta enpresa gehienetan lainoen zerbitzuak gero eta gehiago erabiltzen dira. Ikusten ari gara ez bakarrik informatikako zikloetan edo zerbitzu-enpresetan, baizik eta beste eremu batzuetan ere, hala nola industrialetan, elektronikan, osasunean, guztietan aurki ditzakegula Cloud zerbitzuen erabileraren adibideak.



## Perez sagutxoaren ipuina kontatu eta kantatuko du Glu Glu konpainiak hilaren 19an

Otsailaren 19an (zapatua) taularatu du Glu Glu Producciones konpainiak “Perez Sagutxo”, hiru urtetik gorako edozeinek gozatzeko moduko antzezlan, euskaraz. Galder Perez da egilea eta zuzendaria, berriz, Ugaitz Alegria. Andrea Covadonga aktore eibartarrarekin batera Jon Casamayor, Sara Barroeta eta Leire Ormazabal arituko dira oholta gainean, “Perez sagutxoaren benetako istorioa tularatzen. Ipuin klasiko moduan, komedia lehenetsiz, beti ere dantzekin eta abestiekin jolastuz, alegiazko istorio hori kontatuko dugu”.

Kaxildatar saguen komunitatea, asmatzaile ospetsuak, pertsonen etxe berri batean kokatuko dira. Etxe berrira iristean, Xuri, bere bi amekin bizi den haurrak, oso harreman estua izango du Perezekin, sagu gazteenarekin. Bien arteko adiskidetasuna haurraren burkoaren azpiko ohar eta karta-trukaketa bitxi batekin hasiko da. Xuri gauero iluntasunaren beldur denez, Perez sagutxo izango da bere ametsen zaindaria.

Coliseo antzokian 17:00etan hasiko den ikuskizunak ordu-bete inguruko iraupena dauka eta sarrerak 5 euro balio du.

## Erdialdeko Amerikako migratzaileen dramari buruz arituko dira astelehenean

Pagatxa emakumeen elkar-teak antolatzen duen “Emakumeen istorioak” zikloaren baitan, astelehenean, 18:30ean “La bestia. El tren de la muerte” bideo-forum saioa egingo da Portalean, areto nagusian. Dinamizatzailea Patricia Perex Coto izango da eta sarrera librea eta dohainik izango da, sartu nahi duten guztientzat.

“Piztia” edo “heriotzaren tren” deitzen zaio migratzaileek (batez ere salvadortarrek, hondurastarrek eta guatemalarrak) Estatu Batuetara iristeko era-



biltzen duten garraibide arriskutsuari. Kalkuluen arabera, urtero 500.000 lagun inguru hiltzen dira tren hartu nahian.



## Igor Etxaberen “Eibarko kapital sozialaren oinarriak” hitzaldia osorik ikus daiteke Interneten

Igor Etxabe ikerlariaren “Eibarko kapital sozialaren oinarriak - Las bases del capital social de Eibar” hitzaldia Ego Ibarra batzordearen Youtube kanalean eskuragarri dago, nahi duenak ikusteko moduan. Eibar hiria- ren sorreraren 650. urtemuga- ren harira eman zuen hitzaldia Armeria Eskolan, “Eibartik Eibarrera” Ego Ibarra antolatutako hitzaldi zikloaren baitan, eta bertan Eibarko kapital soziala izan zuen hizpide, Armeria Eskolari arreta berezia eskainiz.

Gure herriaren kapital soziala izan zen, hain zuzen ere,

ikerlariak egindako doktoret- siaren ondorioetako bat eta Economic History Research aldizkarian argitaratutako “Social capital in Eibar, 1886-1985” artikuluan jaso zuten. Bertan dioenez, “Eibarko industriak, enpresen arteko harreman for- malez harago, ugazabek eta lan- gileek osatutako sare informal trinko bat zuen, eta hori garran- tzitsua da herriko tailerren bila- kaera ulertzeko”. Hitzaldia eus- keraz izan zen, baina ulertzen ez dutenek ere ikus dezakete bideoa, gaztelerazko azpitu- luei esker.



## Eskualde mailako rap jaialdia egingo dute Errebal Plazan

North School musika taldea- ren eskutik rap musikarekin beteko da Errebal Plazia otsai- laren 19an, 20:00etan hasiko den jaialdian. Bertan arituko dira, besteak beste, Renk C.A., M. Rek, Katxo, A. White Eme- ka, DrJ, Escó, Ash Beats eta Heiss, musika urbano estiloko

kontzertua eskaintzeko. Hip- hoparen azpikulturaren zale- tuentzat Debabarrena mailako topaketa izatea nahi dute anto- latzaileek eta ez da sarrerarik kobratuko. Hala ere, aforoa kontrolatzeko nahitaezkoa izango da sarreran gonbida- pen aurrezkoa.



## “Inaute inaute” ipuin musikaturako izen-ematea astelehenean zabalduko dute

Ameli eta Xirrikituena Jostunek “Inaute inaute” izeneko kontakizuna eskainiko dute otsailaren 19an, Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan Portaleko areto nagusian 18:00etan hasiko den saioan. Juan San Martin Eibarko Liburutegiaren eskutik, ipuin-kontakteta musikatuak aurkeztuko dituzte Amaia Elizagoien ipuin-konta-

lariak eta Irati Celestino musikariak, euskaraz. Lau urtetik gorako haurrentzat pentsatutako ikuskizuna da eta plazak mugatuak dira. Beraz, joan nahi dutenek astelehenetik aurrera eman beharko dute izena, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) web orrian eskuragarri dagoen formularioa beteta (formularioak [www.eibar.eus/eu/zapatukoipuinatsailak19/](http://www.eibar.eus/eu/zapatukoipuinatsailak19/)).



## Antzerki Jardunaldietako lanak ikusteko sarrerak eros daitezke Coliseoan eta Interneten

Aurten ere osasun-krisiak baldintzatu dituen arren, Eibarko Antzerki Jardunaldiak ate-joka dauzkagu. Egitarauaren aurkezpena aurreko astean egin zuten, baina, herritarrak antzerkiaren gozatzera animatzeko asmoz, Lekin Animazioak taldeko aktoreak herriko kaleetan ibili ziren asteburuan, alfonbra gorri eta guztiz. Betiko

martxan. 45. edizio honetan ere eskaintza zabala izango dugu, era guztietako jendearentzako lanekin. Sarreraren salmenta arrunta astelehenean hasi zen: Coliseoko leihatilan astelehen eta barixakuetan eros daitezke eta, bestela, Interneten, Kutxabank-en bitartez eskuratzeko aukera ere badago.




## Bi argazki-erakusketa zabalik

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak bi erakusketa berri antolatu ditu. Deportiboko Argazkilaritza Batzordeko buru den Bakarne Elejalderen argazkiak Portalea jatetxean ipini dituzte ikusgai eta Depor tabernan, berriz, Argizaiola lehiaketako 2020ko ediziora aurkeztutako argazki-erakusketa ikus daiteke. Otsailaren 28ra arte egongo da bata zein bestea ikustera joateko aukera, taberna zabalitzen duten ordutegian.

## Photoshop ikastaroa euskaraz


Photoshop programa erabiltzen ikasi nahi dutenentzat ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkartean. Oinarrizko ikastaroa izango da eta klaseak euskaraz izango dira, astelehen eta eguaztenetan, 19:30etik 21:30era, otsailaren 21ean hasita (sei egun guztira). Irakaslea Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko Argazki Taldeko kidea izango da eta ikastaroak 30 euro balio du (25 euro bazkideentzat). Izena emateko 638284912 telefono zenbakira deitu edo [arrate-kultu@gmail.com](mailto:arrate-kultu@gmail.com) helbidera idatzi daiteke.



## “Saiakerak” erakusketa Topalekun

Domekan itxiko ditu ateak Mireia Agirrebeña eibartarraren erakusketa Topalekun, baina oraindik badago ikustera joateko aukera, gaur 18:30etik 20:30era eta bihar eta etzi, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Historik gabeko zuhaitz honetan hainbat txori, saguzahar eta karraskari bildu dira. Baina badira hainbat gonbidatu "ia konturatu gabe" pasatu zaizkigunak ere! Ea aurkitzen dituzun: **katua, untxia, hartza, koala, kalabaza, mamua, tximinoa, martetarra, Batman eta Fernando Simon** bera ere.



	2	4	3			6		
1	8					2	3	
							8	
5	3		7	2				
8			4		1			2
				3	5		1	6
	9							
	1	5					2	7
		2			4	1	6	

R	S	L	P	S	E	Z	L	E
A	Z	E	C	R	O	S	I	P
C	S	S	Z	L	B	O	P	
O	L	C	O	C	R	S	P	
C	S	E	T	R	P	J	A	R
P	B	O	D	E	Z	I	C	S
L	B	O	R	E	C	C	J	
E	E	Z	A	P	S	S	P	
S	Z	A	P	S	S	P		
S	Z	A	P	S	S	P		

soluzioa

S  
U  
D  
O  
K  
U

E	L	O	R	A	P	C	S	Z
Z	A	B	S	P	S	P		
C	S	S	Z	L	B	O	P	
R	S	E	T	R	P	J	A	R
L	B	O	R	E	C	C	J	
E	E	Z	A	P	S	S	P	
S	Z	A	P	S	S	P		
S	Z	A	P	S	S	P		
S	Z	A	P	S	S	P		
S	Z	A	P	S	S	P		

soluzioa

9	6			3	4			
	4		1			2		
		1			2		6	
	9							6
	2	7				5	3	
6							2	
	8		2			4		
		9			5		7	
			4	7			1	9

	2	4	3		6			
1	8				2	3		
						8		
5	3		7	2				
8			4		1			2
				3	5		1	6
	9							
	1	5					2	7
		2			4	1	6	

8	9	1	7	1	6	2	4	5
2	8	6	3	9	5	1	7	4
8	9	6	2	7	1	8	6	5
0	1	2	3	4	5	6	7	8
9	8	7	6	5	4	3	2	1
7	6	5	4	3	2	1	0	9
6	5	4	3	2	1	0	9	8
5	4	3	2	1	0	9	8	7
4	3	2	1	0	9	8	7	6
3	2	1	0	9	8	7	6	5
2	1	0	9	8	7	6	5	4
1	0	9	8	7	6	5	4	3
0	9	8	7	6	5	4	3	2
9	8	7	6	5	4	3	2	1
8	7	6	5	4	3	2	1	0
7	6	5	4	3	2	1	0	9
6	5	4	3	2	1	0	9	8
5	4	3	2	1	0	9	8	7
4	3	2	1	0	9	8	7	6
3	2	1	0	9	8	7	6	5
2	1	0	9	8	7	6	5	4
1	0	9	8	7	6	5	4	3
0	9	8	7	6	5	4	3	2

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

9	6			3	4			
	4		1			2		
		1			2		6	
	9							6
	2	7				5	3	
6							2	
	8		2			4		
		9			5		7	
			4	7			1	9

soluzioa

8	9	1	7	1	6	2	4	5
2	8	6	3	9	5	1	7	4
8	9	6	2	7	1	8	6	5
0	1	2	3	4	5	6	7	8
9	8	7	6	5	4	3	2	1
7	6	5	4	3	2	1	0	9
6	5	4	3	2	1	0	9	8
5	4	3	2	1	0	9	8	7
4	3	2	1	0	9	8	7	6
3	2	1	0	9	8	7	6	5
2	1	0	9	8	7	6	5	4
1	0	9	8	7	6	5	4	3
0	9	8	7	6	5	4	3	2
9	8	7	6	5	4	3	2	1
8	7	6	5	4	3	2	1	0
7	6	5	4	3	2	1	0	9
6	5	4	3	2	1	0	9	8
5	4	3	2	1	0	9	8	7
4	3	2	1	0	9	8	7	6
3	2	1	0	9	8	7	6	5
2	1	0	9	8	7	6	5	4
1	0	9	8	7	6	5	4	3
0	9	8	7	6	5	4	3	2



**GOIKOAN**


**8**

**DESBERDINTASUN  
IRUDIEN ARTEAN**

**BEHEKOAN**

**8**

**DESBERDINTASUN  
IRUDIEN ARTEAN**



Denboraren katea. JORGE RODRIGUEZ

# Otsailak 11/17

## BARIXAKUA 11

### BILERA

**18:00** 22. Korrikako batzorde irekia. AEK Euskaltegia.

### DANTZA

**19:00** "El perdón" (Losdedae) dantza ikuskizuna. 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.



## ZAPATUA 12

### HITZALDIA

**12:00** XVII. mendeko kantu-liburuaren inguruan, Jon Bagués musikologo eta musika-artxibozainaren eskutik. San Andres eliza.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30** HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

## DOMEKA 13

### KIROLA FAMILIAN

**17:30** HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

### DOMEKAK KIROLIAN

**17:45/19:45** Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipurua kiroldegia (kantxa berdea).

## ASTELEHENA 14

### BIDEO-FORUMA

**18:30** Emakumeen Istorioak: "La Bestia. El tren de la muerte". Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Pagatxaren eskutik. Sarrera libre eta dohainik. Portalea (areto nagusia).



## MARTITZENA 15

### IBILBIDE OSASUNTSUAK

**10:00** Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

### HITZALDIA

**18:00** Eibarko udalerriko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorren (HAPO) berrikuspenaren aurrerapenari buruzko hitzaldi informatiboa. Beheko Tokia.

## EGUAZTENA 16

### FACTORING

**10:00/20:00** Eibarko Merkealdien Azoka. Toribio Etxebarria kalean.

### TOPAKETA

**18:00** Eibarko Kirol Erakundeen Topaketa: "Eibarko 2017-2027 Kirolaren Plan Estrategikoari buruzko begirada eraikitzailea". Errebal Plazia.

## GURASOAK MARTXAN

**18:00** "Nola landu egoera zailak (doluak, beldurrak...) gure seme-alabekin?" hitzaldia. Portalea (2. pisua).

### BATZARRA

**18:30** Eibarko Sorturen batzarra, Kongresuak Eibarren eman duena eta aurrera begirako erronkak azaltzeko. Arrate Kultur Elkarte.

## EGUENA 17

### FACTORING

**10:00/20:00** Eibarko Merkealdien Azoka. Toribio Etxebarria kalean.

### BATZARRA

**11:00** Ikasten elkartearen urteko batzar nagusia. Armeria Eskola (areto nagusia).

### BATZARRA

**17:30** Ohiko Batzar Orokorra. Ipuruako jubilatuek etxea.

### ANTZERKIA

**19:00** "Esperpentos con chispa y fuego" antzezlan, La Novena taldearen eskutik. 3 euro. Coliseo antzokia.

## ERAKUSKETAK

### Otsailaren 13ra arte:

– "SAIAKERAK",  
MiriMarrazkiren arte  
erakusketa (Topaleku)

### Otsailaren 20ra arte:

– "CORNALES, COLLARES,  
URTAROAK, NÁBULAS Y  
OTRAS OBRAS", Josué Pena  
(Portalea)

### Otsailaren 28ra arte:

– "ARGIZAIOLA 2020"  
argazkiak (Depor taberna)  
– BAKARNE ELEJALDEren  
argazkiak (Portalea  
jaketxea)

## ESKUALDEKO agenda

## ERMUAN

### KONTZERTUA

**11n (barixakua) / 20:30**  
**Ermua Antzokia**  
Shinova taldearen "La buena suerte" azken diskoaren aurkezpena.

## ELGOIBARREN

### ANTZERKIA

**11n (barixakua) / 19:00**  
**Herriko Antzokia**  
"Lehendakari gaia". Txalo Produkzioak. Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga. Sarrerak:herrikoantzokia.eus



### ANTZERKIA

**13an (domeka) / 16:30**  
**Herriko Antzokia**  
"Bidai on, amona Braulia". Jazzbana Ensemble.

## DEBAN

### BISITA GIDATUA

**13an (domeka) / 12:00**  
**Debako Santa Maria eliza**  
"Gotikoaren altxorra". Irteera: Turismo Bulegoa. Iraupena: ordu eta erdi. Sarrerak: www.geoparkea.eus

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Juan Gerardo Andrade Olabe.** 65 urte. 2022-02-3.
- **Begoña Gerenabarrena Aranzabal.** 88 urte. 2022-02-3.
- **Itziar Laspiur Zabala.** 81 urte. 2022-02-7.

## Jaiotakoak

- **Maria Apellaniz Martin.** 2022-01-28.
- **Asier Retana Araujo.** 2022-01-29.
- **Mishal Nasir.** 2022-01-31.
- **Leire Novoa Ansola.** 2022-01-31.
- **Markel San Martin Sanchez.** 2022-02-6.

## Farmaziak

- BARIXAKUA 11**  
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- ZAPATUA 12**  
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- DOMEKA 13**  
EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)
- ASTELEHENA 14**  
EGUNEZ | Mendiñeta (Urkizu, 6)
- MARTITZENA 15**  
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- EGUAZTENA 16**  
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- EGUENA 17**  
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- BARIXAKUA 18**  
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

**GAUEZ BETI,** 2022an,  
Mendiñeta (Urkizu, 6)

## AMPARO GARCIA DE LA CALLE

2022-11-4



Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.  
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun  
ilusioa eta bizipoza.

ETXEKOAK



## XABIER ALDABE AZKARGORTA

III. urteurrena: 2019-11-15



Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.  
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun  
ilusioa eta bizipoza.

ETXEKOAK





688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **ASIER** Agote, eguaztenian 7 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AIUR!** Astelehenian 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaitugu!!



Zorionak, **EKI.** 8 urte bete dozuz eta mutil txintxo, jator eta formala zarelako. Jon, Malen eta Argentinako famelixaren partez.



Zorionak, **HAIZEA,** atzo 2 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat aitzitxa, amama, tio eta tiaren partez.



Zorionak, **JON!!!** Gure foballarixak 6 urte bete ditu! Amama, aitzitxa, aitta, ama eta, batez be, zure arreba Claudiaren partez!!!



Zorionak, **LIBE,** guapisima! Atzo 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxeko danon eta, bereziki, Anerren partez.



Zorionak, **MARILUZ** Uriarte!! Hillaren 9xan 91 urte egin zenduaz-elako. Besarkada haundi bat zure famelixa guztiaren partetik!!



Zorionak, **HELENA!!** Etzi 9urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak, **OIER** (astelehenian 9 urte) eta amatxo **MARIJOSE** (eguaztenian)! Ondo ondo ospatu urtebetetziak. Musu haundi bana danon partez.



Otsailian **XAREK** 3, **ZIORTZAK** 40 eta **SUHAR**-ek 6 urte egiten dozuenez... Zorionak, **AQUARIUS TEAM!!!** Musuak famelixaren partez!!

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **12an:** 19:45, 22:30
- **13an:** 20:00
- **14an:** 20:30

“Mira por mi”

Zuzendaria: Randall Okita



### 2 ARETOA

- **12an:** 16:00, 19:00, 22:00
- **13an:** 17:00, 20:00
- **14an:** 20:30

“El callejón de las almas...”

Zuzendaria: Guillermo del Toro



### ANTZOKIA

- **12an:** 17:00 (1 Aretoa), 19:45, 22:30
- **13an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **14an:** 20:30

“Belfast”

Zuzendaria: Kenneth Branagh




### ANTZOKIA

- **12an:** 17:00
- **13an:** 17:00

“Kikoriki. Déjà vu”

Zuzendaria: Denis Chevrov



# Iragarki laburrak



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldia eta komunak. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422..

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelekoa. Erreferentzia onak. Tel. 667060292..

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

- Furgoneta bat alokatuko nuke eguera onean. Etxe-aldaketa bat egiteko, otsailaren 26tik martxoaren 2ra arte. Tel. 617265575. Avelina..

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 612297642.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Interna. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 617610706.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria-laguntzaile titularekin. 10 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 642709219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 600836168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631091264.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 641342619.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 632589202.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzaile, tituluduna. Tel. 660511781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta bulegoak edo etxebizitzak garbitzeko. 11 urtetako esperientzia. Tel. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631412316.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 643584198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 667060292.

### 4.2. Langile bila

- Ileapaintzailea behar da Eibarren amatasun baja bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculuma Bidebarrieta 16an..

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Eibarko akademiak euskara eta ingeles maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidalitako curriculumak: info@itzamna.eus

- Dibujo Teknikoko irakaslea behar da Eibarren. Batxilergo Artistikoko 1. mailarako. Tel. 664391026.
- Ingeleseko irakaslea behar da Elgoibarko akademia batean. Tel. 667261248.
- Ingeleseko partikular irakaslea behar dut Erasmus prestatzeko. Tel. 616479840.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitate sarriderako klaseak ematen dira, goiz eta arratsalde. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688624326.
- Bi armairu salgai, hiru atekoak. 2'20ko altuera, 3,060ko zabalera eta 0'45eko sakonera. Prezioa adosteko. Tel. 688661625.
- Ohe-buru eta oinak (1'35x1'90), mesilla, komoda, sarrerako altzaria, bisilla eta zutikako mahaia (marmolezko gainestalkiarekin) salgai. Oso merke. Tel. 627008888. Carmen.
- Egongelarako mahai handia eta erdirako mahai txikia salgai. Biak kristalezkoak eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 606882043.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Hilaren 15ean mendiko guante batzuk topatu nituen Arrate inguruan. Tel. 653724549.

Fase berria salgai. Informa zaitez!

EIBAR ESTAZIÑO ERAIKINA

Eibarko zure geltoki berria

WWW.ESTAZIÑO.COM

Erreal merkatari zati guhe  
erabat 70 metrora

Prezioak 115.000€-tik aurrera

grupo eibar inmobiliaria

GRUPO EIBAR BULEGOA  
Ibarkurutze 10 · 20600 EIBAR

943 31 66 11 · 679 032 342

E: comercial@grupoeibar.com

## Euskararen sozializazioa eta transmisioa

# XII. MINTEGIA



- 08:45:** Akreditazioa eta material banaketa
- 09:00:** Ongietorria
- 09:15:** **"101 ELE proiektua. Euskal Herriko aniztasuna eta euskararen balioa integratzeko"**. Idoia Etxeberria, Badihardugu euskara elkarteko kidea eta 101 ELE proiektuko arduraduna.
- 09:55:** **"Egunean Behin: jolas bat, hiru datu eta bi gogoeta"**. Josu Azpillaga, CodeSyntax enpresako ingeniaria.
- 10:35:** **"Euskara. Kultura, Transmisioa. Ertzetatik. Igo Bolumena!"**, Naroa Jauregizuria, Ahize AEK-ko Aholkularia
- 11:15:** ATSEDENA
- 11:45:** **"Kantu bat gara"**. Jon Maia, bertsolaria, kultur eragilea eta kultur aniztasunean aritua
- 12:25:** **"Asko edo gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutza-mailarako?"**. Iñaki Lurrebaso, soziologoa eta EHUko irakaslea.
- 13:45:** Agurra

**Martxoaren 16an**

**ARMERIA Eskolako areto nagusian**

Bertan zein streaming bidez aurrez aurre jarraitzeko aukera

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)  
normalizazioa@etakitto.eus  
943 20 09 18

**Izen-ematea ZABALIK**  
**martxoaren 14ra arte**





# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, Inplantologian.  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Autran Institutua. Bartzelona.  
Etengabeko Formakuntza.  
New York-eko Unibertsitatea.  
Oklusioan Graduondoa.  
Anibal Alonso Doktorea.


Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)